


# Eskari publikorako eta eskaintza teknologikorako Berrikuntzaren Erosketa Publikorako Gida Bikoitza:

I+G+b sustapena Bizkaiko  
Lurralde Historikoan



## ÍNDICE

### SARRERA

- 1.1 Gida hasi aurretik

### BEPA BIZKAIAN

- 2.1 BEPrek ekimen nagusiak Bizkaian
- 2.2 EAEn egin berri diren BEPren beste esperientzia batzuk

### ZER DA BEP ETA ZEINTZUK DIRA BERE EZAUGARRI NAGUSIAK?

- 3.1 Nola sortu zen BEPa?
- 3.2 Zer da BEP?
- 3.3 BEP motak?

### BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA ESKARIAREN IKUSPEGITIK

- 4.1 Onura eta eragin nagusiak administrazio publikoetan
- 4.2 Laguntza ekonomikoak - Eskariaren finantza tresnak
- 4.3 EPentzako BEP prozesua
- 4.4 Zer erronka ditut administrazio publiko gisa BEP munduan?

<b>3</b>	<b>BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA ESKAINTZAREN IKUSPEGITIK</b>	<b>51</b>
5	5.1 Enpresentzako eta ekintzaileentzako eragina eta onura nagusiak	52
7	5.2 Babes ekonomikoa – Eskaintzarako finantza-tresnak	55
8	5.3 BEPko prozesua: eskaintzarako jarduketara bide nagusiak	59
12	5.4 Zer hartu behar da kontuan BEPko prozesuetan parte hartzeko eta BEPko eskaintza bat aurkezteko – kontratu-etapa	68
13	5.5 Zein erronka ditut teknologia eskaintza gisa BEP munduan?	82
14	<b>ZER ZALANTZA SOR DAITEZKE PROZESUAREN AURREAN?</b>	<b>87</b>
15	6.1 BEPrekin lotutako zalantza nagusiak	88
16		
	<b>NON LOR DEZAKET BEPRI BURUZKO INFORMAZIOA?</b>	<b>95</b>
21	7.1 Estatu mailako informazioa	96
22	7.2 Nazioarteko mailako informazioa	97
25	7.3 BEPko prozesuetarako sarbidea	98
38		
47	<b>ERANSKINAK</b>	<b>101</b>



1.

Sarrera

Beazen xedea da enpresei eta ekintzaileei laguntzea proiektu berriak sortu, berritu eta nazioartekotzeko esfortzuan, Bizkaiko Lurralde Historikoan enplegu trebatua sortzen eta jarduera ekonomikoa hazten laguntzeko azken helburuarekin.

Azken urteotan, berrikuntza-politika publikoen bilakaera gertatu da eskaera eredu baterantz, non Berrikuntzaren Erosketa Publikoa, hemendik aurrera BEP, ekoizpen-sektorean berrikuntza sustatzeko tresna arrakastatsu gisa nabarmentzen den sektore publikotik datozen irtenbide irtenbide berriei esker.

Beazetik, aukera honekin bat egin nahi dugu eta bere onurak baliatu, besteak beste, hauek:

- Enpresa-berrikuntza sustatzea, batez ere, enpresa txiki eta ertainetan, eta ekintzailetza eta nazioartekotzea bultzatzea
- Administrazioaren, enpresen, zentro teknologikoen, ikerketa zentroyen eta akademiaren arteko lankidetzaren errazten duten berrikuntza irekiko ekosistemen sustapena
- Eskualdeko profesionalen talentua nabarmentzea

Zentzu horretan, IDOMekin elkarlanean egindako gida honen bidez, laguntza-mekanismoak eskaini nahi dizkiegu administrazio publikoei eta entitate publikoetatik bultzatutako erronka edo desafio hauek gainditzeko BEPren bidezko konponbide berritzaileak proposatu eta garatu nahi dituzten ekintzaileen taldeei, ETEei eta start-upei.

Hauxe aurkezten dizuegu:

*«Eskari publikorako eta eskaintza teknologikorako Berrikuntzaren Erosketa Publikorako Gida Bikoitza: I+G+b sustatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan»*

## 1.1 Gida hasi aurretik

Hurrengo kapituluetan BEPa zer den eta zergatik den Bizkaiko ekosistema berritzailearentzako interesgarria tresna aurkeztuko da, baita entitate batek, publikoa zein pribatua, BEP ingurune berriei aurre egin eta horietan parte hartzeko aholkuak eta

adibideak ere. Jarraian, gida honetako eduki orokorren azalpen laburrak agertzen dira, nola erabiltzen den eta zer aurkituko den bertan jakiteko.





### NOLA PARTE HARTU

Prozesu osoa ezagututa, unea iritsi da eskaintza teknologikoak Administrazio Publikoaren etorkizuneko lizitazioetan lankidetzan aritu eta eragina izateko zer gako dauden identifikatzeko.

Ezagutu gomendio hauek eta BEP prozesuetan parte hartzeko kontuan hartu beharreko aholku nagusiak 5.4 atalean. BEP prozesuetan parte hartzeko kontuan hartu behar dena zein BEP eskaintza aurkezteko-kontratu-fasea.



### PROZESUA EZAGUTU

Administrazio publikoek, enpresek eta ekintzaileek jakin behar dute nolakoa den BEPa ezaugarritzen duen prozesua hura gauzatu eta bertan parte hartzeko.

Gidak prozesu hau erakusten du Administrazio Publikoaren ikuspegitik, eta lehenengo aldiz, eskaintzaren aldetik, aukera sortu zenetik lizitazioa argitaratu eta gauzatu arte pausoz pauso.

Informazio hori eskuragarri dago 4.3 BEP prozesua Administrazio Publikoetarako eta 5.3 BEP prozesua: eskaintzaren jardura ildo nagusiak atalean.



### KULTURA BERRITZAILEA

Azkenik, BEParen erronkei aurre egin nahi dieten entitate, publiko zein pribatuen kulturaren garrantzia aipatzen da.

Entitateak BEP ingurune berriei aurre egin ahal izateko, ulertu behar du nola kudeatu bere partaidetza eta nola sustatu berrikuntza eta parte-hartze aktiboa eta arina.

Informazio hau 4.4 Zer erronka ditut Administrazio Publiko gisa BEP munduan? atalean dago eskuragarri. 5.5 Zein erronka ditut teknologia eskaintza gisa BEP munduan? eta 7. kapitulua. Non aurkitu dezaket BEPari buruzko informazioa?




### KONTRATU-FASEAN PARTE HARTZEKO GAKOAK

BEParen erronka klausulak prestatu eta argitaratu ondoren gauzatuko da, hau da, kontratu-fasea iritsitakoan.

Oro har, enpresek "zorroan" dituzten jadanik garatutako produktuak eskaintzen dituzte. Ostera, BEPan, erakunde publikoek ez dute zahazki argitaratzen zer nahi duten, baizik eta konpondu behar den arazoa/beharra zahazten dute eta zer murrizketa edo eskakizun hartu behar diren kontuan. Era berean, Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubideen banaketa eta balorazio ohiko kontratuetatik bereizten dira eta balio handiagoa ematen zaie proposamen funtzionalei, elementu berritzaileei, produktuaren bizitza zikloari eta adierazleei.

Xehetasun horiek guztiak 4.3.1 Berrikuntzaren Erosketa Publikoan Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubideei buruzkoak kontratu-klausulak atalean aurki ditzakezu.





# 2.

BEPa Bizkaian

*Bizkaia I+G+b ekosistemak sustatu eta hura osatzen duten eragile desberdinen artean finkatzeko lan egiten duen eskualdea da. Jarraian, Bizkaian abian jarritako ekimen desberdinak aurkezten dira, BEParen erabileraren bidez ildo horretan egindako ahalegina eta lana islatzen dutenak.*

## 2.1 BEPren ekimen nagusiak Bizkaian

### 2.1.1 EtxeTIC

#### ENTITATEA

Bizkaiko Foru Aldundia  
(Azpiegiturak, S.A.M.P.)

#### HELBURUA

Haien etxean jarraitu nahi duten mendekotasun egoeran dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzen duen arreta programa.

#### DATA

Erronkaren aurkezpena: 2020/01/23

Enpresentzako jardunaldi teknikoa: 2020/01/30

Ideien aurkezpenaren amaiera (MAK): 2020/02/28

Azken eguneraketa: 2020/02/03

#### BURUTUTAKO EKINTZAK

Merkatuaren aurreitiazko-kontsulta (MAK)

Hurrengo urratsak: proposamenen kudeaketa eta ebaluazioa eta MAKaren bukaerako txostena prestatzea.



Bizkaiko Foru Aldundiak zahartzearen erronkei aurre egin nahi die Lurraldearekiko mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta haien zaintzaileei erantzuteko eta zerbitzura jartzeko dituzten formula berriekin, baliabide tekniko, antolakuntza eta teknologia berritzaileen eskaintza zabalagoarekin, etxeko arreta laguntzea.

**EtxeTIC**en bidez mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro baten (25 plaza) berezko arreta konbinatu nahi da mendekotasun egoeran haien etxeetan dauden kopuru handiagoarekin (751 pertsona), etxean laguntzeko eta prebenitzeko teknologiak erabilia kontrolatuz, eta noizean behin zentroari laguntza emanez.

Ekimen aitzindari hau Etxaniz zentroan burutzen da, Bilboko Marcelino Oreja kalean duela gutxi birgaitu diren 800<sup>2</sup> baliagarri dituenak.

Proiektua Berrikuntzaren Erosketa Publikoko prozesuaren bidez abian jartzen da, hiru berrikuntza-motatan oinarritzen dena (teknologikoa, soziala eta antolakuntzakoa – zentroaren eta zerbitzuaren kudeaketa). Pilotua egiteko, 18 hilabetez, hasiera bateko milioi bat euroko aurrekontua dago. Erronka honen bidez, zentroen eta zerbitzuen belaunaldi berri bat sustatu nahi da.



2020. urtearen hasieran, Merkatuaren Aurretziazko-kontsulta egin zen, eta horren helburua zen erronkaren alderdi teknikoak eta kontsultan parte hartzeko formatua azaltzea. Gaur egun prozesua jasotako ideien kudeaketa eta ebaluazio fasean dago.



### MEDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

OSPITALERATZEAK  
NARRIATZE FISIKOA  
NARRIATZE KOGNITIBOA




### DATUAK BILTzea



### ZAINTZAILEAK

GAINKARGA  
ORIENTABIDEA  
PRESTAKUNTZA



### LAGUNTZA-ZERBITZUA

ETXANIZ  
ZENTROA  
ETXETIC  
PROIEKTUA

### INFORMAZIO GEHIAGO

Ekimenaren aurkezpena, [sarbide esteka](#)

Erronkaren aurkezpen zabalagoa, [sarbide esteka](#)

MAK informazioa, [sarbide esteka](#)

Zalantzetarako kontaktua: [etxetic@bizkaia.eus](mailto:etxetic@bizkaia.eus)

## 2.1.2 BFAren GovTech berrikuntza irekiko programa

Bizkaiko Foru Aldundiak, Herri Administrazioa eta Erakunde Haremmanetarako Saisetik eta Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzutik, GovTech berrikuntza irekiko programa jarri du abian, etorkizuneko larrialdi zerbitzua eraikitzeko.



Iturria: DFB/BFA

### ENTITATEA

Bizkaiko Foru Aldundia - Su Itzaltze eta Salbamendu Foru Zerbitzua

### HELBURUA

Berrikuntza irekiko programa, BFAri etorkizuneko zerbitzuak eraikitzeko tresnak eta metodologiak emateko.

### DATA

Programaren aurkezpena: 2020/01/29

### BURUTUTAKO EKINTZAK

Tailerra Larrialdi Bizkairekin berrikuntza espazioak identifikatuz

### INFORMAZIO GEHIAGO

Ideien proposamenean parte hartzea, [sarbide esteka](#)

Su Itzaltze eta Salbamendu Foru Zerbitzua da berrikuntza irekiko programa hau sustatzen duen erakundea, haien helburua izanda aldaketetara irekita egotea eta, batez ere, Bizkaiko L.H.-an zerbitzu hobea diseinatu eta eskaintzea.

Horretarako, 2020aren hasieran, berrikuntzarako espazioak identifikatzeko tailerra egin zen, etorkizuneko larrialdi zerbitzua Bizkaian eraikitzeko tresna eta metodologiak hartuz.

Horren ondorioz, haien erronkak suhiltzaileen lan ekipamendua kudeatzeko eta mantentzeko lana errazten eta sinplifikatzen laguntzen duten irtenbide teknologikoak aztertzea bideratuta daude, erreskate ibilgailuak hornitzeko beharrezko denbora optimizatzen laguntzen baitute eta beharrezko ekipamendua mantentze egoera egokian daudela ziurtatzen dute.

### 2.1.3 BEP proiektu pilotua - Bilboko Udala




Iturria: Bilbao trekia, Bilbao.eus

#### ENTITATEA

Bilboko Udala (Alkatearen Kabinetea)

#### HELBURUA

Osoko bilkura, prentsaurreko edo agerraldi baten **edukiaren** transkripzio **osoa**, (**testura**) automatikoki **lortzea** bideoa beretik automatikoki, baliabide osagarririk gabe eta denbora errealean.

#### DATA

2018-2019

#### BURUTUTAKO EKINTZAK

Merkatuaren aurretzako kontsulta  
Lizitazioa

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

MAK, [sarbide esteka](#)

Bilbao-Bilboko Udala udalak BEPrekin bat egin zuen bertako mailako erronka batekin, konponbide berritzaileak aurkitzea *“osoko bilkura, prentsaurreko edo agerraldi baten edukiak testura transkribatzeko bideo beretik, baliabide osagarririk gabe eta denbora errealean”*.

Merkatuari egindako aurretzako-kontsultaren bidez, lau entitate desberdinetatik jaso ziren ideiak, eta horietatik % 50 interesgarritzat eta proposutako erronkari konpobidea emateko gai bezala jo ziren. Ideia horiek pleguak lantzeko sargaia izan ziren, eta horien bidez, erronkari erantzuten zuen produktu berritzailea lortu zen.

Irtenbidea ezaugarritzen duten osagai berritzaile nagusiak transkripzioa eta azpigituluak kudeatzeko plataforma integrala eta hizkera-ezagutze motorra egotea izan ziren, euskalki desberdinak bereizten zituen.

## 2.2 EAEn egin berri diren BEParen beste esperientzia batzuk

### 2.2.1 Euskal Trenbide Sareak eta Euskotrenek kudeatutako sarearen ezponda eta material mugikorraren sentzorizazioa

Eusko Jaurlaritzak, ETSren bidez, ezpondak eta material mugikorraren sentzorizaziorako ideiak eta irtenbideak bilatzen ditu ETSk eta Euskotrenek kudeatzen duten sarean. 2019an, merkatuari zuzendutako aurretzako kontsulta egin zitzairen ezponden kontrolean, material mugikorraren sentzorizazioan eta ondorengo datuen tratamenduaren esperientzia funtzionala eta teknikoa duten enpresei, baita arlo horietako ikerketa-taldeei eta ezagutza-eragileei ere. Konposatzen duten erronkak hauek dira:

#### ENTITATEA

Eusko Jaurlaritza eta ETS - Euskal Trenbide Sarea

#### HELBURUA

Trenbide sarean ezponda eta material mugikorra sentzorizatzea

#### DATA

Erronkaren aurkezpena:  
2019/07/22

Ideien aurkezpen amaiera (MAK):  
2019/09/24

MAK txostena eta ondorioak:  
2020/12/03

Azken eguneraketa: 2020/02/03

#### BURUTUTAKO EKINTZAK

Merkatuaren aurretzako-kontsulta.  
Elkarriketak 1. eta 2. txandan.  
Ondorioen txostena  
Hurrengo urratsak: pleguak idaztea eta argitaratzea

#### INFORMAZIO GEHIAGO

MAK iragarpena, [sarbide esteka](#)

MAK txostena eta ondorioak,  
[sarbide esteka](#)

Hurrengo urratsak, [sarbide-esteka](#)




Iturria: Inekia Eusko Jaurlaritza

#### 1. ERRONKA: Ezponden mugimenduen detekzio goiztiarra

ETSren trenbide sareak zeharkatzen duen lurraldearen orografia konplikatu dela-eta, lehenasuna da trenbide zirkulazioari kalte egin diezaioketen erasanak aurreikusi ahal izatea, batez ere, malda edo ezpondetatik erori edo desplazatu daitekeen materialaren ondorioz, etab. ETSk kontrol-metodo bat garatu nahi du sarean zehar dauden ezpondak etengabe eta aldizka kontrolatzeko, mugimendu horien inguruko informazioa jasotzeko, horiei aurrea hartze aldera, eta prebentzio-ekintzak proposatzeko, trenbide-plataformaren eta zirkulazioaren balizko erasanak saihesteko.

#### 2. ERRONKA: Euskotreneko material mugikorraren sentzorizazioa trenbide sarearen eta bestelako instalazioen auskultaziorako

ETSk auskultatzeko tren bat dauka eta horrekin bidearen parametro desberdinen bilakaera aztertzen du, horren akatsak zehazte aldera. Hala ere, tren honen portaera dinamikoa oso desberdina da benetako trenarekin alderatuta. Instalazioen bilakaerak ikuspuntu iragarletik ezartzean oinarritutako estrategiak garatu nahi dira, inguruneko zenbait baldintzen aurreko portaerak simulatzeko.



# 3.

Zer da BEP eta zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak?


### 3.1 Nola sortu zen BEPa?

Berrikuntzaren Erosketa Publikoa (BEP) I+G+bn oinarritutako merkatuaren garapena bultzatzea ahalbidetzen duen tresna da, zehazki, administrazio publikoek burututako produktu eta zerbitzu berritzaileen erosketaren bidez.

BEP etengabe eraldatzen ari den merkatu baten exijentzien ondorioz sortzen da. Horretarako, administrazio publikoek esfortzu gehigarri bat egin behar dute eskaria identifikatzeko eta bultzatzeko, merkatura orientatutako politika malguak eta dinamikoak sustatuz. Enpresa, beraz, sistema baten parte izaten hasten da edo, hobeto esanda, berrikuntza-ekosistema baten parte, non inguruneko beste elementu batzuekin elkarrekintzak gertatzen diren, esate baterako, ezagutza sortu edo zabaltzen duten eta horiek produktu edo prozesu berrietan eraldatzen dituzten erakunde eta eragileekin. Horrela, ikuspegi berri horretatik, berrikuntzak sustatzeko ekimen berriak hartzen hasi dira, eskaeratik bultzatuta, Eskariaren berrikuntza-politikak deritzonarekin bat egiten dutenak.

Horrela, norabide bakarreko berrikuntza-eredu batetik, lankidetzarako eta baterako garapenerako eredu holistikoa baterantzko bilakaera sortzen da, azken erabiltzaileen ikuspegi integratzen duena.


#### Dirulaguntzak I+G+b proiektuentzako



#### ESKU-HARTZE EREDU TRADIZIONALA

- Berrikuntza eskaintzatik
- Laguntzak industriari eskaintzen zaizkio
- Ahalegin handiagoa enpresetan eragina izateko
- Ez da enpresan I+G+b sistematizatzen

#### Berrikuntza kontratuak



#### BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA - BEP

- Berrikuntza Eskaritik
- Merkatuan existitzen ez diren produktu eta zerbitzuak
- Eragin handiagoa enpresa ehunean
- I+G+b-ren garapen sistematikoa enpresan

### 3.2 Zer da BEP?

Beraz, BEP erakunde publikoei merkatuan existitzen ez diren eta behar edo arazo garrantzitsuak asetzen dituzten produktuak/zerbitzuak eskuratzea ahalbidetzen dien tresna da. Tresna hau

hobeto ulertzeko, tresna hau zer den eta zer ez den zehatzago azaltzen da:

#### BEP DA...

- Eskaririk berrikuntza sustatzeko tresna
- Merkatuan EZ dauden produktu edo zerbitzu berritzaileen erosketa
- Administrazio publikoen eta enpresa sektorearen arteko lankidetzak publiko-privatua, non bi alderdiek baliabideak inbertitzen dituzten, planteatutako beharrei irtenbide ad hoc bat diseinatzeko (erabiltzailea ardatz hartuta)

#### BEP EZ DA ...

- Kontratu mota berria (SPKLn barne daudenak aplikatzen dira)
- Ez da adjudikazio eredu bat (SPKBLn araututakoak erabiltzen dira)
- Ez datza tresna teknologikoak kontratazio prozesuan erabiltzean
- Ez datza kontratazio prozesuan berritzean
- Ez da lehenik dauden produktu berritzaileak erosketa

**«Berrikuntzaren Erosketa Publikoak ahalbidetzen du enpresek berrikuntzak garatu eta ingurune errealetan frogatu ahal izatea, administrazio publikora gerturatuz bestela ase ezin litezkeen beharrei irtenbide berriei, eta bultzatu balio erantsi handiko merkatuen berrikuntza eta garapena»**

### 3.3 BEP motak

**H2020ren arabera**, bi BEP mota bereiz daitezke eskuratuko den teknologiaren heldutasun-mailaren arabera: Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoa (TBEP) eta Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoa (MAEP).

**Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoa (TBEP)** erosketaren anean existitzen ez den baina arazoizko denbora batean gara daitekeen ondasun edo zerbitzu baten erosketa publikoan datza. Erosketa horrek teknologia berri edo hobetua garatzeko eskatzen du entitate kontratatzaileak eskatutako baldintzak betetzeko.

**Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoa (MAEP)** merkatuan une horretan daudenekin alderatuta berritzaileak diren emaitzak lortzera bideratutako I+G zerbitzuak erostera soilik mugatzen da, kontratazio-organoak osorik ordainduta. Organo honek adjudikaziodun enprekin partekatzen ditu merkatuan eskuragarri dauden irtenbide berritzaileak garatzeko beharrezkoak diren ikerketa zientifiko eta teknikoaren arriskuak eta onurak.

#### Orduan, nola zehazten da BEP mota?

BEP mota prozesuaren bidez lortu nahi den teknologiaren heldutasun mailaren arabera zehazten da. Aldi berean, hauen bidez jakin daiteke heldutasun maila: TRL – Technology Readiness Level.

TRL NASAn (National Aeronautics and Space Administration) sortutako kontzeptua da, baina gero orokortu egin zena edozein proiektutan aplikatzeko eta ez soilik proiektu aeronautiko edo espazialean, jatorrizko ideiatik hasi eta hedapenera arte.

Zehazki, TRL teknologia baten heldutasun maila neurtzeko modu onartua da. Hori dela eta, teknologia zehatz bat kontuan hartzen badugu eta honen duen TRL edo mailari buruzko informazioa badugu, haren heldutasun teknologikoari buruzko ideia bat izan dezakegu.

Etapak TRL 1etik hasita: oinarrizko ikerketa TRL 9ra arte: aplikazio komertziala joaten dira.



Jarraian, TBEP moten zerrendaren (Teknologia Berritzaileen Erosketa Publikoa eta Erosketa Publiko Aurre-komertzialaren

(EPA)) eralazioa TRL mailekin aurkeztuko da, bai eta maila bakoitzeko I+G+b egoera eta bere aplikazio ingurunea ere.



### BERRIKUNTZARAKO ELKARTEA

Berrikuntzarako Elkartea ez da BEP mota bat, baizik eta merkatuan entitate publikoaren premiak asetzeko konponbiderik existitzen ez den kasuetan soilik aplika daitekeen esleipen-prozedura bat. Kasu hauetan, beharrezkoa da I+G jarduerak egitea produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko, erosle publikoak horiek geroago erosteko eskala komertzialean.

Azkenik, TBEP eta MAEP bereizten dituzten ezaugarri nagusiak jasotzen dira:



TBEP


- Kontratuaren xedea da teknologia murriztutako time to market batekin garatzea
- Erosketaren emaitza merkatura daitekeen produktu bat da
- Enpresa bakar bat edo proposatzaile anitza (ABEE) da konponbidea garatzen duena
- Azken ordainketa egiteko, emaitzak funtzionatu behar du



MAEP


- Kontratuaren xedea da I+G jarduerak garatzea, ez kontratu osoa
- Erosketaren emaitza prototipo bat da
- Hainbat izan daitezke paraleloan lan egiten duten konponbidearen garatzaileak
- Emaitzak funtziona dezake edo ez. Aztertzen ari dena prototipo baten bideragarritasuna da





*Zergatik izan daiteke BEP  
administrazio publikoek  
aztertzeko aukera?*

*- Eskariaren ikuspegia -*



4.

Berrikuntzaren  
Erosketa Publikoa  
eskariaren ikuspegitik

## 4.1 Onura eta eragin nagusiak administrazio publikoetan

BEPren irismena erabilera publikorako ondasun edo zerbitzu berritzaile bat erostetik haratago joan daiteke. Erakunde publiko

erosleen ikuspegitik lor daitezkeen onura nagusien artean honako hauek daude:

### 4.1.1 Onura estrategiko eta ekonomikoak Zuzenak



Lehiakortasuna hobetzen duten merkatu estrategiko berritzaileen sorrera eta indartzea



Eragina du I+G+b adierazleetan, baita eskualdeko ekonomia eta enpresa ehunaren laguntza eta indartzean ere



Gastu publikoan aurrezkiak sortzen ditu produktuen bizitza zikloa kontuan hartuta



Berrikuntzarekin lotutako tokiko, estatuko edo Europako funtsetarako sarbidea



Ospearen eta irudiaren hobekuntza eta publizitate positiboa sortzea (erreferentziarako entitateak)



Sektore publikoa berrikuntzaren erakarle bihurtzen du berrikuntza teknologikoak merkatuan sartuz

Jarraian, etekin erlazionalen kategoria erakusten da, zuzenak eta zeharkakoak bereiziz:

### 4.1.2 Etekin erlazionalak **Zuzenak**



Beharrak eta erronkak konpontzen ditu, horietako askok aurretik identifikatu zirenak arazoari irtenbide ad-hoc bat aurkitu gabe



Beharrak asetzea berrikuntzaren bidez, herritarrei laguntza hobea eskaini ahal izatea bermatuz, zerbitzu horien hartzaile gisa



Beste proiektu batzuetan erabil daitezkeen ezagutzak, trebetasunak eta teknikak garatzen ditu



Langileen eta erabiltzaileen gogobetetze maila altuagoa eskaintzen du

### Etekin erlazionalak **Zeharkakoak**



Enpresetan profesionalen parte-hartzea sustatzen du, lehiakortasuna hobetzen du eta gaitasunak eskuratzea bultzatzen du



Eragileen arteko harremana erraztu eta bultzatzen du: enpresak, ikerketa teknologikoko zentroak, unibertsitateak, garapen agentziak, etab.




Eskaintza teknologikoarekin ikaskuntza interaktiboa ahalbidetzen du eta arriskuak eta onurak partekatzen dira



Maila teknologiko ertaina eta ertaina/altua duten enpresen presentzia areagotzen da

### 4.1.3 Eragin orokorra erakunde publikoentzat

Aurreko puntuan adierazitako onurak osatzeko, Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) eta Valentziako Unibertsitateak argitaratutako BEPren eragina jasotzen da, eta horrek adierazten du kontratu publikoak abian jartzen dituzten administrazio publikoak CPI<sup>1</sup> tresna erabiliz hurrengoa lortzen dute:



<sup>1</sup> ELGA - 2014. Cobb-Douglas I+G ahalegin pribatuaren eredu. Valentziako Unibertsitatea 2008-2009; Serrano Dominguez et al.



## 4.2 Laguntza ekonomikoak - Eskariaren finantza tresnak

### 4.2.1 Europako Esparrua: Europak BEPrekin duen konpromisoa


Kontratazio publikoa inbertsio publikoaren funtsezko alderdia da, herrialdeen garapen ekonomikoa estimulatzen baitu eta barne merkatuak sustatzeko elementu garrantzitsua da, baita merkatu bakarra ere. Kontratazio mota honek azken urteotan EBko BPGdren % 19 inguru ordezkatzeko zuten, herritar guztien eta negozioen eguneroko bizitzan eragin handia duten Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen funtsezko bideratzaile bihurtuz.

Europa mailan, duela urte batzuk arte, I+G+b sustatzeko diseinatutako politikak eskaintzaren gain eragina zuten tresnak erabiltzera bideratzen ziren (eskaintza politikak). Eskaririk berrikuntzan egindako interbentzio publikoa (eskari politika), ordea, esku hartzeko eredu berria definitzen du, non administrazio publikoek kontratazio publikoak eskaintzen dituen aukerak beren jarduera-esparruetan berrikuntza sustatzeko erabiltzen dituzten, horrela bere ehun produktiboaren lehiakortasuna hobetuz.



2000. **urtearekin aurrera Lisboako estrategiarekin** hasten da hitz egiten kontratazio publikoaren aukerei buruz garapenaren palanka gisa, BEP gero eta garrantzi handiagoa hartzen hasten da berrikuntza politikari buruzko EBren diskurtsoetan. 2007an Lead Market Initiative plazaratzen da, BEPren erabilera bultzatzen duena 6 puntako merkatuetan enpresa garapenerako. Geroago, Europa 2020 Estrategiarekin, kontratazio publikoari funtsezko papera eman zaio, laugarren belaunaldiko zuzentzarauen bidez eta Horizonte 2020 programako I+G+b funtsen berbideraketarekin BEPrantz. Une honetan, apustua indartu egin da Horizonte Europa 2021-2027 barruan.

Hurrengo grafikoan, estrategien eta programen bilakaera ikus daiteke BEPren laguntzari dagokionez, Europa mailan.



### a) Eskualde garapena eta kohesioa 2020ren ostean: esparru berria hitz gutxitan

2021 - 2027 zazpi urtekorako EBk bost inbertsio lehentasun ezarri ditu. Eskualde garapenerako inbertsioak batez ere 1. eta 2. helburuetara bideratuko dira. EEGF eta Kohesio Funtzaren baliabideen % 65 eta % 85 bitartean lehentasun horietara bideratuko dira, estatu-kideen aberastasun erlatiboaren arabera:

- Europa adimendunagoa, berrikuntzaren, digitalizazioaren, eraldaketa ekonomikoaren eta enpresa txiki eta ertainen laguntzaren bidez.
- Karbonorik gabeko Europa ekologikoagoa, Parisko Akordioa aplikatzen duena eta trantsizio energetikoan, energia berriztagarrietan eta klima aldaketaren aurkako borrokan inbertitzen duena,
- Europa konektatuagoa, garraio estrategikoarekin eta sare digitalekin.
- Europa sozialagoa, eskubide sozialen zutabe europarra errealitate bihurtuko duena eta kalitatezko enplegua, hezkuntza, hezkuntza-gaitasunak eta lanbide-gaitasunak, gizarteratzea eta osasun-laguntzarako sarbide eskubideberdintasuna bultzatuko dituena.
- Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa, tokian kudeatutako hazkunde-estrategiak babesten dituena eta EB osan hiri-garapen jasangarrian laguntzen duena.

**ESKUALDE  
GARAPENERA  
EGOKITUTAKO  
IKUSPEGIA!**

- Kohesio politikak eskualde guztietan inbertitzen jarraituko du hiru kategoriatan berdinetan oinarrituta: gutxi garatuak, trantsizioan edo garatuagoak.
- Funtzak esleitzeko metodoak neurri handi batean biztanleko BPGa kontuan hartzen jarraituko du. Irizpide berriak gehitzen dira (gazteen langabezia, hezkuntza maila baxuak, klima aldaketa eta etorkinen harrera eta integrazioa) lurreko errealitatea hobeto islatzeko. Eskualde ultraperiferikoek EBren laguntza berezia lortzen jarraituko dute.
- Kohesio politikak tokiko kudeaketa garatzeko estrategiei laguntzen eta tokiko agintariei funtsak kudeatzeko ahalmena ematen jarraituko du. Kohesio politikaren hiri dimentsioa ere sustatzen ari da, EEGFaren % 6 hiri garapen iraunkorrera bideratuta dago eta hiri autoritateei bideratutako gaitasuna eta sareak sortzeko programa berri bat eskaintzen dute: Europako Hiri Ekimena.

### **Horizonte Europa, programa berria**

Europa Horizonte ikerketa eta berrikuntza sustatzeko ekimena da, ehun mila milioi euroko aurrekontuarekin.

Europako Batzordea eta Parlamentuak Horizonte Europari buruzko akordio batera iritsi ziren, Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Esparru Programa 2021-2027 aldirako, Horizonte 2020 programaren luzapena osatzen duena.

Europar Batasunaren ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko ekimen nagusia da, hain kuzen ere, fase kontzeptualetik merkaturatzera arte. Halaber, estatu zein eskualde mailako finantzaketa osatzeko balio du.

Horizonte  
Europa

EBren ikerkuntza eta  
berrikuntzarako hurrengo  
programa (2021-2027)

*Europaren lehiakortasuna handitzea, EBren oinarri  
zientifikoak eta teknologikoak sendotzea*



*Berrikuntzarako  
gaitasuna suspertu*



*Europar lanpostuak hobetu*



*Hiritarren lehenetsunak bete*



*Europar Batasuneko eredu  
sozioekonomikoa suspertu*

## Europa Horizontea, egitura

Ikerketa eta Berrikuntzako hurrengo esparru-programa EUROPA HORIZONTEA da eta proposamena hiru oinarritan egituratuko da; aldi berean, oinarri horiek beste jarduera horizontal batzuekin

osatuko dira, ikerketako espazio europarra indartzeko atalaren pean (2.100 M€).

### 01. ZIENTZIA IREKIA (28.500 M€)

Zutabe horren barruan, Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC ingelesezko siglak) mugako ikerketara zuzendutako ekintzak egongo dira, 16.600 M€ izango dituena, Marie Skłodowska-Curie ikerketa eta berrikuntza giza baliabideen prestakuntzarako eta mugikortasunerako, 6.800 M€, eta ikerketa azpiegiturarako laguntza 2.400 M€.

### 02. ERRONKA GLOBALAK ETA INDUSTRIA-LEHIAKORTASUNA (52.700 M €)

EBko politikak eta garapen iraunkorraren erronkak indartzen dituzten funtsezko teknologia eta konponbideak bultzatzera bideratuta, sektore-arteko ikuspegia erabiliz ikerketa eta berrikuntza jardueretan bost klusterren bidez:

- Osasuna, 7.700 M€.
- Gizarte inklusibo eta segurua, 2.800 M€.
- Digitala eta industria, 15.000 M€.
- Klima, energia eta mugikortasuna, 15.000 M€.
- Elikagaiak eta baliabide naturalak, 10.000 M€.

Zutabe honek Zentroko jarduerak ere barne hartzen ditu Ikerketa Bateratua (JRC), 2.200 M€

### 03. BERRIKUNTZA IREKIA (13.500 M€)

Berrikuntzaren Europako Kontseilua (EIC) biltzen da, gaur egun Horizonte 2020-en fase pilotua duena, merkatuak sortzeko potentziala duten berrikuntza disruptiboak laguntzeko, horretarako 10.500 M€ bideratuko dira, horiekin konektatzeko berrikuntza sistemak, estatuko eta eskualdeko eragileekin konektatzeko (500 M€) eta Berrikuntza eta Teknologiako Europako Institutua (EIT), 3.000 M€ izango ditu bere jarduerekin jarraitzeko.



## Horizonte Europa, eransketa berriak

Horizonte 2020ren epe ertaineko ebaluazioan jasotako informazioaren artean, aipagarria da punta-puntako berrikuntzari laguntzeko garrantzia. Horregatik, berritasun gisa, Horizonte Europar Berrikuntzarako Europako Kontseilua sortu da. Europako Batzordeak leihatila bakarra izateko asmoa du puntako teknologiarik itxaropentsuenak bere aplikazio komertzialera azkar eramateko.

Berrikuntzarako Europako Kontseilu (EIC) berriak merkatu berriak sortzeko ahalmen handia duten garapen handiko eta arrisku handiko berrikuntzak antzeman eta finantzatzeko eginkizuna du. Proiektu berritzaileak zuzenean finantzatuko ditu, funtsean, bi tresnen bidez: bata enpresa berrien lehen etapei bideratutakoa eta bestea edozein motatako enpresa berritzaileen garapena eta merkaturatzeari bideratutakoa.

Beraz, etorkizuneko merkatuak sortzen lagunduko du, finantzaketa pribatua aprobetxatuz, berrikuntzara bideratutako enpresak biderkatuz, arriskuak hartuz eta kudeaketa eta jarraipen arina eta proaktiboa eginez. Laguntza hau dirulaguntzen eta bizkortzaileen bidez burutuko da.

Abangoardiakoak edo disruptiboak diren berrikuntzak bultzatzea zabalkunderako aukera badute, inbertsiogile pribatuentzat arriskutsuegiak direnean.

### Berrikuntzarako Europako Kontseilua

Entitate/pertsona/enpresa berritzaileei etorkizuneko merkatuak sortzen lagundu, finantzaketa pribatuaz baliatuz eta beren enpresak handituz.

Arriskua eta proaktiboa den kudeaketa eta monitorizazioa, arriskuak hartzen dituen eta berrikuntzara bideratuta dagoena.

Bi tresna osagarri ideia eta inbertitzeko proiektuaren arteko distantzia laburtzeko.


**Arakatzailea:** dirulaguntzak (teknologiaren fase goiztiarretik fase aurrekomertzialera arte)

**Bizkortzailea:** dirulaguntzak eta finantzaketa konbinatuak (fase aurrekomertzialetik merkatu eta zabalkunde faseetara arte)

**b) Berrikuntza kontratatzeko finantzaketa. Horizonte 2020. Uneko aldia.**

Urte batzuk daramatza Europar Batasunak eskaritik abiatutako I+G+b sustatzeko politikak diseinatzen. Horretarako, hainbat ekimen jarri ditu abian enpresen lidergoa lortzeko Europako ekonomiaren garapenerako ezinbestekotzat jotzen diren

merkatuetan, erosketa publikoei paper garrantzitsua emanez, helburu hori lortzeko tresna nabarmen gisa. Zehatzago, finantzatuko diren ekintza-motak, bereziki, hiru dira:




## Berrikuntzaren kontratazioarako EBko aurrekontuaren bilakaera

Orain arte garatutako programa nagusien harrera ona kontuan hartuta, Europako Batzordeak ikerketa eta berrikuntzarako aurrekontua 114,8 milioi eurora igo du, eta horietatik % 85 Horizonte Europa Programara bideratuko da.

Europar Batasunak berrikuntza kontratatzeke duen konpromisoaren froga da azken urteotan ekimen mota hauetara bideratutako aurrekontua handitu dela.

Investing in the future  
in billion euro



Note: Compared to the Multiannual Financial Framework 2014-2020 at EU-27 (Estimate)

### 2018 53,7 M€

#### PCP

- Interes publikoko edozein arlotako IK Tetan oinarritutako irtenbideak: 6 M € (IKT-34)
- Osasuna eta arreta digitala: 22 M € (DTH-10)
- Segurtasuna: 9,7 M € (SU-GM03)

#### CSA

- Osasun asistentzia / diagnostiko integratua: 2 M € (HCO-12)
- Osasuna eta arreta digitala: 3 M € (HCC-04)
- Segurtasuna: 5 M € (SU-GM01) + 6 M € (SU-GM02)

### 2019 69,5 M€

#### PCP

- Interes publikoko edozein arlotako IK Tetan oinarritutako irtenbideak: 6 M € (IKT-34)
- Hurrengo belaunaldia. ohiko diagnostikoa egiteko sekuentziazioa: 30 M € (BHC-10)
- Olatuen energia: 20 M € (LC-SC3-JA-3-2019)

#### PPI

- Zahartzen ari den gizarte batentzako osasun eta arreta digitaleko irtenbideak: 10 M € (DTH-05)

#### CSA

- Osasun asistentzia / diagnostiko integratua: 2 M € (HCO-12)
- Osasuna eta arreta digitala: 3 M € (HCC-04)
- Segurtasuna: 5 M € (SU-GM01) + 6 M € (SU-GM02)

### 2020 88,5 M€

#### PCP

- Osasuna eta arreta digitala: 9 M (DTH-14)
- % 100 berriztagarriak diren energiak: 15 milioi € (LC-SC3-RES-10)
- Satelitea: 3 M € (EGNSS-5)
- Segurtasuna: 24 M € (SU-GM02)
- Arreta integratua: (BHC-20A)
- Ikerketa azpiegitura: 30 milioi € (INFRAINNOV-4, hemen PCPI + Ikerketa baten parte da)

#### PPI

- Diagnostikoa, (BHC-20B) BHC-20A eta B batera: 25 M €

#### CSA

- Segurtasuna: 7 M € (SU-GM01)
- Garraioa: 1,5 M € (MG-3-8) + 4 M € (LC-MG-1-12)



## 4.2.2 Estatuaren esparrua: I+G+b sustatzea

Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako estrategia berri baten garapenean lan egiten ari da, 2021-2027 aldia barne hartuko duena eta 2013-2020 aldian erabilitakoari jarraipena emango diona. Estrategia horretatik, Estatuko planak sortuko dira eta Espainiako I+G+b eremuan lortu beharreko helburu orokorrak ezartzeko tresna izango da.

Helburu horiek Europar Batasunaren “Horizonte Europa” I+G+b jarduerak finantzatzeko programa berriaren barruan ezarritakoekin lerrotatuko dira, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako eragileen parte-hartze aktiboa sustatzen lagunduz esparru europarrean.

Ministeriotik kontuan hartzen da I+G+bn enpresa-inbertsioak duen garrantziaz, ekonomia lehiakorren definizioan aldagai erabakigarri gisa. Tresna estrategikoa da nazioarteko merkatuan estatu mailako enpresak hobeto kokatzeko, enplegua sortzeko gaitasunean zuzenean eragiten duena, gainera Sistemaren agenteen arteko harremanak garatzeko eta egituratzeko funtsezko elementua da.

### Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Estrategia 2021-2027



Iturria: MICIN Neen aurkezpena, Osasun-berrikuntzaren Mugen Inguruko Jardunaldia

### a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Estrategia 2021-2027ren helburuak


Estrategia honen bidez lortu nahi da 2027an Zientziak, Teknologia eta Berrikuntzaren bidez ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako lurraldea, bere gizarte, ekonomia eta ingurumen

erronkei aurre egiteko eta ongizate iraunkorra eta hazkunde inklusiboa lortzeko gai dena.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza **GJHak lortzeko hauen** eta garapen sozialaren zerbitzura jarri, baita garapen ekonomikoa eta ingurumenekoarena ere, guzti hau Europar Batasunarekin koordinatuz.

Zientzia eta berrikuntza mailan **erakargarria den lurralde bat sortu**, abantailak eta elementu bereizgarriak aprobetxatuz.

Talentua **mantendu eta erakartzeko gaitasuna indartu**, baita baldintza berdinetan garapen profesionala erraztea ziurtatu.




Nazioartekotzea **lagundu eta bultzatzea** Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren parte hartzen duten eragile guztien artean.

Ezagutzaren **transferentzia erraztea**. Zientziaren, berrikuntzaren eta gizartearen arteko loturak bidirekzionalak sendotu eta garatu. Zientzia eta berrikuntza gizartearen erronken parte bihurtu eta gizartea garapen zientifiko eta berritzailearen parte.

**Ikerketa eta berrikuntza enpresa ehunean sustatzen du**, I+G+bren aldeko apustu egonkorra handituz eta enpresa berritzaileen esparrua zabalduz, lehiakorragoak izan daitezten.


Estrategia berri honekin, sistemaren ahalmenak osotasunean hobetzeko tresna bat sortu nahi da, eragile guztien arteko lankidetzaz erraztuz eta I+G+bren etekin soziala eta ekonomikoa handituz. Dokumentu berriak 2021-2027 urteotan gai honi eskaintako aurrekontua handitzeko beharra ezartzen du, arau-esparru eta tresna malguak lortzeko berrikuntza sistemako eragileen beharretara egokituta, eta I+G+b estatu eta sektore politikak Europako esparrukoekin koordinatu eta osatu.



Erabiltzen ari den ekintza eredua honako hau da:

- **Lortu beharreko zenbait emaitza/helburu:**
  - Zientziaren eta berrikuntzaren eragin soziala hobetzea.
  - Kalitatezko enplegua sortzea.
  - Ezagutza sortzea.
  - Lehiakortasuna handitu.
- **Hainbat ekintza zehatz:**
  - Berrikuntza sistematikoa.
  - Zientzia bikaina eta irekia.
  - Estatu mailako misioak.
  - Berrikuntza ekosistema.
  - Hiritarren inplikazioa zientzia eta berrikuntzan.
- **Oinarritzen diren zeharkako elementuak:**
  - Lehentasuneko GJHak.
  - Horizonte Europarekin lerrotzea/nazioartekotzea.
  - Diziplinartekotasunaren sustapena. Ekintzailletza.
- **Honako hauek mugatutako ekintza esparruan:**
  - Araudia eta finantzaketa.
  - Lehentasun sektorialak, eskualdekoak eta tokikoak.
- **Erakundeen oinarrituko zutabetan oinarrituta:**
  - Giza baliabideak.
  - Digitalizazioa.
  - Azpiegitura teknologiko zientifikoa

Hurrengo grafikoan BEPri laguntzeko estrategien eta programen bilakaera erakusten da estatu mailan



### BEP proiektuen sustapena estatu mailan

- **Finantzaketa: ZBMk FID (Eskaririk berritzeko funtsa) lerroaren bidez kudeatutako EGEF Funtsak**
- **Zenbateko osoa 2007 - 2013:**
  - Administrazio ezberdinekin gauzatzen ari diren proiektuen sinatutako 11 hitzarmen 105,8 M € baino gehiagoko zenbatekoarekin (79,1 M € EEGF)
- **2014-2020 zenbateko osoa:**
  - FID SALUD 2: 7 proposamen hautatuak (21,3 M € EEGF)
  - FID SALUD 3: 4 proposamen hautatuak (8,3 M € EEGF)
- **INNODEMANDA Programa - CDTI 2011- 19 lizitazio atxiki ziren**



### Eskualde/tokiko BEP ekimenak



Kataluniar BEP Programa (12 M €)



BEP Cyl Programa (10 M €)  
BEP Asturias Programa



Andaluziar BEP Estrategia (50 M €)



Udaleren BEP Estrategia, Madrild (6 M €)



BEP Udaleren estrategia Valentzia

### **b) Eskaria finantzatzeko tresna**

Jarraian, entitate publikoek BEPko proiektuetan erabili beharreko kanpo-finantzaketako tresna bat jasotzen da.

#### **Berrikuntza Sustatzeko Linea Berrikuntzaren Kontratazio Publikoko eskaeratik (BEF-BEP Linea)**

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak zuzendutako programa da, eskualdeez gaindiko proiektuetarako egokia eta non eragiketen zenbatekoa bost milioi eurotik gorako izango den. Eskualde bakoitzak finantziarki parte hartzen du eskualde motaren arabera definitutako dagokion finantzazio tasaren arabera. Beraz, finantzaketa koefizientea autonomia erkidego bakoitzaren arabera izango da.

Finantzatuko diren ekintzek, Ministerioak xedatutakoarekin bat etorriz, erakunde publikoen arteko lankidetzaren sustatzen dutela frogatu behar dute, hau da, laguntzen duten enpresek egindako irtenbide berritzaileak garatu eta eskuratzeko:

- Zerbitzu publikoak hobetzea, eraginkortasunari dagokionez.
- Berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna hobetzea, enpresa I+G+brako funtsak erakarriz kontratazioen bidez.
- Berrikuntzaren komertzializazioa indartu bezero publikoa abiarazle edo erreferentzia gisa erabiliz.
- Ekintzailetza eta berrikuntza suspertzea, bereziki ETETan

#### **Barne hartzen diren faseak:**

Laguntza hauen bidez emandako finantzazioak BEPren bi faseak barne har ditzake:

- I. fasea: Konponbide berritzaileak garatzea, baliozkotzea eta martxan jartzea, Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoko (MAEP) edo Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoko (TBEP) operazioen bidez.
- II. Fasea: Konponbide berritzailearen hedapena.

EEGFetik finantzatu daitekeen aurrekontuaren kopuru esanguratsua BEPren lizitazioetara bideratu beharko da. Deialdiek zenbateko horren ehunekoa ezarriko dute, 2014 - 2020 urteetan (% 80).



### 4.3 EPentzako BEP prozesua

BEP proiektuak burutzeko prozesua, administrazio publikoaren ikuspegitik, hiru etapa nagusi ditu: **Plangintza**, **Kudeaketa** eta

**Ebaluazioa**, sekuentzialak direnak; eta hurrengo jarduerak barneratzen dituenak:



Jarduera bakoitzaren xehetasunak honako hauek dira:

Beharren  
identifikazioa



Enpresa publiko batek Eskari Goiztiarraren Mapetan edo premia-katalogoetan zehaztuko diren premiak edo arazoak arintzeko ariketak gara ditzake.

Eskari Goiztiarreko Mapa Administrazio Publikoek merkatuan dauden beharrak aurreikusteko tresna da, informazio baliotsua eskaintzen diena enpresei haien I+G+b ekimenak etorkizuneko lizitazioetara bideratzeko.

Design Thinking metodologiak aplikatu ohi dituzten ariketen bidez, erakunde publiko baten talde estrategikoak, berrikuntzaz, pertsonal tekniko, kontratatzaile eta juridikoz osatutakoa, epe labur, er tain eta txikian izango dituzten erosketa beharrak edo erronka teknologikoak identifikatu ahal izango ditu epe luzera, eskaintza teknologikoak planteatutako gaien inguruan bere I+Gko ikerketa garatu dezan.



Eskaintza teknologikoaren  
parte-hartze maila



**Adibidez:** Galiziako Osasun Zerbitzuak bere Código 100 proiektuaren barruan garatutako Eskari Goiztiarreko Mapa, merkatura aurreratzen diona bere kontratatzeko asmoak.

[codigo100.sergas.es/Contidos/XornadaPresentacionDemandaTempera](https://codigo100.sergas.es/Contidos/XornadaPresentacionDemandaTempera)

Jarduera bakoitzaren xehetasunak honako hauek dira:

## Merkatuaren kontsulta plazaratzea

2

Behin erakunde publiko kontratatzaileak eskaera goiztiarreko mapan zehaztutako erronketako bat edo identifikatu duen premia zehatz bat hautatzen duenean, hurrengo jarduera erronka abiaraztea da merkatuan balizko irtenbideen kontsulta egiteko.

Erronka teknologikoa ebaluatu behar diren irizpide funtzional jakin batzuekin asetu ez den behar baten arabera planteatzen da. Horrela, berrikuntza irekiko prozesuetan eta berrikuntza-plataformetan oinarrituta, erronka "Aurretzako premia-fitxaren" bidez komunikatzen zaie hornitzaileei, unibertitatei, garapen teknologikoko zentroei, ekintzaileei eta enpresariei, merkatuari zuzendutako aurretzako kontsultan azaldutako premiarri erantzuteko.

Merkatuari zuzendutako aurretzako kontsulta SPKLaren 115. artikuluan jasotako kontratua baten diseinu fasean garatzen den tresna edo praktika da (kontratuaren aurreko fasea). Xede nagusia da merkatuaren gaitasunari eta etorkizuneko kontratazioen zientzia- edo teknologia-egoerari buruzko informazioa lortzea eta operadore ekonomikoei proiektuen eta betekizunen inguruko informazioa ematea, balizko hornitzaileak administrazio publikoen egungo arazoentzako konponbideen definizioan laguntzen duten eragile aktiboak izan daitezten.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila

**I. eranskinan** Eskaerak erabiliko dituen inprimakiak - a) eta b) adibide gisa sartzen dira "Aldez aurreko merkatuaren aurretzako-kontsulten iragarkia" eta "Aurretzako beharren fitxategia" argitaratzeko inprimaki ereduak



**Adibidez:** EUPFek identifikatutako hiru erronken inguruan irtenbide berritzaileak lortzeko, merkatuaren aurretzako-kontsulta egitea, Red.es-ekin lankidetzan, mugikor tasunari, giza talentuaren ekonomia zirkularrari eta zahartze aktiboari buruz.

[femp.femp.es/Microsites/Front/PaginasLayout2/Layout2\\_Personalizables/MS\\_Maestra\\_2/\\_k6sj7QfK2b\\_IPxCOFXhuU0iDMkMuri9OkBubXbHUNPEg0sXkfqNn6rrbw-q\\_0Rs](http://femp.femp.es/Microsites/Front/PaginasLayout2/Layout2_Personalizables/MS_Maestra_2/_k6sj7QfK2b_IPxCOFXhuU0iDMkMuri9OkBubXbHUNPEg0sXkfqNn6rrbw-q_0Rs)



Jarduera bakoitzaren xehetasunak honako hauek dira:

Konponbide berritzaileen proposamena



Eskaintzak (enpresak, start-upak, ekintzaileak, I+G+b zentroak, unibertsitateak, besteak beste) erakunde kontratatzaileak planteatzen duen BEP erronka aztertzen duen eta beharrari erantzuteko konponbide berritzaileak proposatzen dituen unea da.

Entitate kontratatzailea irekita egongo da erronkarako ideia proposamenak eta irtenbide alternatiboak jasotzeko. Eskaintzako entitate batek irtenbidea lortzeko ideia duenean, baina beste konpainia baten laguntza behar duenean irtenbidea osoagoa izan dadin, aliantza estrategikoak, aldi baterako elkartea edo partzuergoak egin daitezke ideia aurkezteko.

Eskaintzak Administrazio Publikoak ahalbidetutako ideiak biltzeko formatuaren bidez konponbide berritzaile bat lortzeko ideia edo ideiak proposatuko dizkio entitateari. Normalean, "Konponbide berritzaileen proposamenen fitxa" betez izango da, hori entregatzeko helbide elektronikora bidaliko dena edo, bestela, plataforman zuzenean betetzeko eremuak izango dituen ideien plataforma baten bidez.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila



**Adibidez:** Código 100 Enpresa-Ekimenetik sorturiko Konponbide Berritzaileen Gida.

[codigo100.sergas.gal/DCarruselPortada/7/Gu%C3%ADa%20de%20Iniciativas%20empresariales%20de%20soluciones%20innovadoras.pdf](https://codigo100.sergas.gal/DCarruselPortada/7/Gu%C3%ADa%20de%20Iniciativas%20empresariales%20de%20soluciones%20innovadoras.pdf)

Jarduera bakoitzaren xehetasunak honako hauek dira:

Eskaintzaren eta eskariaren arteko elkarrizketa



Konsulta amaitutakoan, erakunde kontratatzaileak jasotako proposamenak aztertuko ditu. Kontzeptu edo garapen bat argi ez dagoela uste denean, eska daiteke bilerak egiteko, proposatzailearekin bere proposamenari buruz hitz egiteko. Eskaintzaren eta eskariaren arteko topaketa hauek aktetan erregistratu beharko dira, prozesu osoaren gardentasuna eta trazabilitatea bermatzeko.

Dagozkion argipenak egin ondoren, entitateak aztertuko du beharrak asebetu daitezkeen ala ez eta lehia eraginkorrerako hornitzaile nahikorik dauden.

Azkenik, burututako jarduketak jasoko dira txosten batean (egindako ikerketak eta egileak, kontsultatutako entitateak, egindako galderak eta erantzunak), 9/2017 Legeak bere 115. artikuluan adierazten duen moduan. Txosten honen helburua, emaitzak zabaltzeaz gain, honakoa izango da: eskaintzari jakinaraztea interesekotzat jo diren alderdiak etorkizuneko lizitazioaren plegetan sartzeko.

Azken irtenbidea hainbat proposamengileen ekarpenen ondorioz sor daiteke.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila

**I. eranskinean** Eskaeran erabiliko diren inprimakiak - c) adibide gisa sartzen da "Merktuaren Aurreitazio-kontsultenemaitzen txostenaren egitura" eredu bat

Jarduera bakoitzaren xehetasuna honako hau da:



#### Kontratazio -prozesuaren garapena

Merkatuaren aurretzako-konsulta amaitu eta konsulten txostena argitaratu ondoren, entitateak konponbide-idea eraikitzen amaitu beharko du. Orduan, kontratazio-prozesua hasten da Administrazio-klausula Partikularren Pleguekin (AKPP) eta Zehaztapen Funtzionalen Pleguekin (ZFP), administrazio publikoaren erosketa politikaren arabera; horretarako zehaztuko

dira esleitzeko prozedurak, kaudimen-irizpide teknikoak, baita jasotako eskaintzentzako ebaluazio-irizpideak ere. Amaitutakoan, dagokien hedabideetan argitaratuko dira: EHAa, kontratugilearen profila, besteak beste.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila



#### Kontratazioa formalizatzea

Kontratazioa Berrikuntzaren Erosketa-kontratuaren bidez formalizatuko da, entitate publikoaren aldetik kontratistari. Bi alderdiek berrikuntzaren arriskuak identifikatuko dituzte eta proiektuan izan dezakeen eragina ebaluatuko da. Era berean, Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubideak eta ondorengo berrikuntzaren ustiapen komertziala adostuko dira, kasuaren

arabera (gainera, lizitazio-pleguetan sartuko dira). **4.3.1 atalean Jabetza Intelektualeko Eskubideei eskaintzako espazioa dago**



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila



#### Konponbide berritzailearen garapena

Erakunde kontratatzaileak kontratuan adostutako baliabideak eskaintzen dizkio kontratistari berrikuntzaren garapena adostutako denboran gauzatzeko, aurkeztutako balio eskaintzan

adierazten den moduan. Bere garapena bi aldean arteko lankidetzeta eta giro konstruktiboan gauzatu da.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila



Jarduera bakoitzaren xehetasunak honako hauek dira:



### Jarraipena eta ebaluazioa

Aldizka, kontratuan zehaztutako fase eta mugarrien jarraipena burutuko da, aurreikusitakoa betetzen ari dela egiaztatzeko eta, sortuko balira, beharrezko aldaketen kontrolak ere mantentzeko.

Oso garrantzitsua da administrazio publikoak kontratuan ezarritako adierazleak kontuan hartzea; izan ere, horiek garapenaren aurrerapena aztertzen lagunduko dute, baita garatutako irtenbideak izango dituen emaitzak eta eraginak ere.



Eskaintza teknologikoaren parte-hartze maila

**«BEPren esparruan, entitate hornitzaileek eta erosleek hauxe egin beharko dute: konfiantzazko klima batean elkarlanean aritzea, beharrak eta aukerak sistematikoki identifikatzeko eta zerbitzu eta ondasunak hobetzen dituzten irtenbide berritzaileak bilatzeko, bai herritarrentzako, bai konponbideen azken erabiltzaileentzako»**



Kontratazioa  
formalizatzea

### 4.3.1 Berrikuntzaren Erosketa Publikoan Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubideei buruzkoak kontratu-klausulak

BEP garatzeko prozesuan, Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubideak kontuan hartu behar dira. Eskubide hauen tratamenduak gogoeta desberdinak izango ditu BEPren fasea aurre-kontraktuala edo kontraktuala bada.

#### Kontratu-aurreko fasea

Merkatuaren aurretiazko-konsulta Fase honetan, entitate porposamengileek ideien aurkezpena egiten dute, irtenbide berritzaileetarako ideien deialdiaren bidez. Ziurtatzen zaie ideia horiek kontuan hartuko direla bakarrik interesgarriak izaterakotan, kontratu fasean argitaratuko diren terminoekin bat egiterakoan.



#### Kontratu fasea

Kontratu aurreko fasea agortu eta kontratazio prozesuaren agiriak zehaztu ondoren, irtenbide berritzailea eman duen entitatearen hautaketa objektiboa burutuko da zehaztutako ebaluazio irizpideen arabera hasiz (PCAP eta PEF). Entitate adjudikazioduna izango da BEPa burutzen duena eta erakunde publikoarekin konponbidearen diseinurako ariketa garatzen duena.



Kontratu fasean, Jabetza Intelektual eta Industrialeko Eskubide horien tratamendua beti izango da Administrazio Publikoaren eta enpresa irabazlearen artean negoziatzen denaren arabera, baina, batez ere, uneoro eskubideak eta hauen tratamendua arautuko dituzten kontratazio pleguetan jasotakoa errespetatu beharko da. Kontratua formalizatzean JIIE eta ondorengo berrikuntzaren ustiapen komertziala adostuko dira.

Hala ere, argitu behar da, arau orokor gisa, gomendioa ukatu egiten dela, Erosketa Publikoa Aurre-komertziala - EPA eta Teknologia Berritzaileen Erosketa Publikoa - TBEP bereiziz, hala ez bada ere, honako hau dela eta:

#### TBEPN GOMENDATZEN DA...

Jabetza Ekubideak entitate esleipendunari/ei esleitu.

#### EPPN GOMENDATZEN DA...


Jabetza Eskubideen jabeakidetasun tratamendua errespetatu.

BEP erronkei irtenbidea emateko kontratuetan erabiltzen diren Jabetza Industrial eta Intelektualeko Eskubideei buruzko ohiko klausula batzuk hauek dira:

*Administrazio kontratatzailea jabetza intelektualeko eskubideen jabetza emango dio enpresa esleipendunari, **sarbide mugagabea** izango duena ikerketa eta garapen emaitzak doan erabiltzeko. Ezeztazina eta mugarik gabeko lizentzia, guztiontzat, guztiz ordaindua, egile eskubiderik gabe eta dagokion jabetza intelektualeko eskubidea iraungi arte.*

*Edonola ere, proiektuaren emaitzak alderdienak izango dira (administrazioa eta enpresa), **jabekidetasun**-arabidean, horietako bakoitzak egindako ekarpenari eta lanari dagokion ekarpenean.*

*Aurretik zeuden jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak **sartu** dituenaren alderdiarenak izango dira.*



*Enpresa esleipenduna behartuta egongo da administrazioari ikerketaren eta garapeneren emaitzerako doako **sarbide mugagabea** ematera, administrazio kontratatzaileak erabiltzeko. Horrez gain, **hirugarrenei sarbidea** eman beharko die merkatu-baldintzetan, adibidez, esklusiboak ez diren lizentzien bidez.*

*Jabetza intelektualeko eskubideak **itzultzea** edo call-back, bermatzeko horiek enpresa esleipendunen jabetza intelektualek eskubideak ustiatzen ez dituztela edo interes publikoaren kalterako erabiltzen ez direla.*

## 4.4 Zer erronka dituzte administrazio publiko gisa BEP munduan?

BEP prozesua ezartzeak esan nahi du administrazio publikoek entitate gehienaren artean ohikoak diren erronka batzuei aurre egitea.

Erronka nagusiak hiru arlotan sailka daitezke: prozesua, pertsonak eta ingurumena.

ERRONKAK:  
KULTURA  
BERRITZAILEA,  
ARINTASUNA  
PROZESUETAN ETA  
INGURUNEAREKIKO  
HARREMANERAKO  
ERRAZTASUNA



Prozesuak



Pertsonak



Ingurunea



Aurreko elementuak kontuan hartuta, jarraian, eskaintza teknologikoak berrikuntzarako eta BEPrako giro egokia lortzeko

aintzat hartu behar diren zenbait erronka eta jardunbide egoki zehazten dira:

## Prozesuak



- **Prozesu eta prozedura zehatzak zuzen definitzea**, eta garrantzitsuen dena, definizio hau erakunde bakoitzaren errealitatearen, kulturaren eta bere berrikuntzaren kudeketaren heldutasun mailaren arabera egitea. Ohiko akatsa da egokitzapen hori beharrezkoa ez dela pentsatzea eta beste erakunde publiko batentzat funtzionatu duena gurean funtzionatuko duela pentsatzea.
- **Ez izan oso preskriptibistak**. Funtzionalak edo errendimenduan oinarritutako preskripzioak lizitatzaleei irtenbideak proposatzeko orduan malgutasuna emateko modu bat dira. Hala eta guztiz ere, oreka zail bat dago merkatuari errekerimenduak zehazki helaraztearen eta errekerimendu horiei erantzuteko modu desberdin eta berritzaileentzako espazio nahikoa uztearen artean.
- **Jabetza intelektualeko estrategia bat ezartzea**; izan ere, BEPk ideia berriak egi bihurtzean inbertitzea dakar, bai administrazio publikoaren aldetik, bai produktuaren edo zerbitzuaren erakunde hornitzaileen aldetik. Alderdi guztiek berreskuratu nahi dute beren inbertsioa eta hori, normalean, Jabetza Intelektual eta Industrialaren Eskubideen forman egiten da.
- **Beharrezko finantzaketa izatea**, berrikuntzako eta BEPko prozesuak burutzeko eta erakunde hornitzaileei itxaropen faltsurik ez emateko.

## Pertsonak



- Entitate publikoaren buruzagien partez erabaki argia egon behar da BEP berrikuntza politikarako tresna gisa erabiltzeko eta kontratazio publikoaren erabilera estrategikoaz konbentzituruta egotea.
- **Beraz, akatsa onartzen da** bai pertsonengandik, bai BEP prozesutik, akatsa berrikuntzaren berezko atala baita. Pentsamendu horrek BEP prozesuetan parte-hartzea errazten du.
- **Formakuntza** eskaintzea (sentsibilizazioa eta prestakuntza) BEP prozesu bat hasiko duten profesionalentzat, zertan datzan eta nola gauzatu jakiteko.
- **Disziplina anitzeko BEP lan taldea** izan guztizko edo dedikazio partziala duena BEP proiektuak abiarazteko. Talde hau profil estrategikoz osatuta egon behar da, tekniko edo berrikuntzakoak, juridikoak/eskuhartzea, hala-nola kontratazioa, prozesu guztiaren fase desberdinetan laguntzeko.




Aurreko elementuak kontuan hartuz, jarraian, eskaintza teknologikoak berrikuntzarako eta BEPrako giro egokia lortzeko

aintzat hartu behar dituen zenbait erronka eta jardunbide egoki zehazten dira:

## Ingurunea




- Egitura ekonomikoarekiko eta enpresa-egiturarekiko harremanak **indartzea**, (garapen teknologikoko zentroak, ikerketa-zentroak, unibertsitateak, start-upak, ekintzaileak, besteak beste), hurbiltzea erraztuz eta sorkuntza-kidetasuna bultzatuz.
- **Merkatua ezagutzea**, produktu edo zerbitzu berritzaile baten balizko hornidura-katearen ezagutza sakona izateko; izan ere, normalean, hauxe hartzen du barne BEPK: (i) eragile edo talde industrial berrien parte-hartzea; (ii) material edo zerbitzu espezializatuen beharra eta (iii) kontratu-egitura edo ordainketa-sistema berritzaileak.
- **Informazioa askatasunez argitaratzea**, gardentasuna sustatzeaz gain, ikeritzaileak, zentro teknologikoak, unibertsitateak eta enpresak animatzeko administrazio publikoaren erronken inguruan hausnartzera eta balizko konponbideak garatzera, kontratazio-prozedura bat abiarazi aurretik ere bai.
- **Prozedura malguak erabiltzea**, hala nola, elkarrizketa lehiakorra, negoziazio bidezko lizitazio-prozedura edo berrikuntzarako lankidetzak. Prozedura irekiekin edo mugatuekin alderatuta, prozedura hauen abantaila da aukera ematen dutela merkatuarekiko elkarrekintza malguagoa izateko, preskripzioak berriz definitzea eta kontratua esleitzea erraztuz.



*Zergatik izan daiteke BEP  
enpresek eta ekintzaileek aztertu  
beharreko aukera bat?*

**- Eskaintzaren ikuspegia -**



5.

Berrikuntzaren Erosketa  
Publikoa eskaintzaren  
ikuspegitik

## 5.1 Enpresentzako eta ekintzaileentzako eragina eta onura nagusiak

BEpk onura handiak eskaintzen dizkie enpresei eta ekintzaileei, eskema berri honek bezero publikoekiko harreman-esparru berri bat ezartzea ahalbidetzen duela ikusten ari direnak. Jarraian,

onurak bi kategoriatan bereizita erakusten dira: estrategiko eta ekonomikoak eta erlazionalak.

### 5.1.1 Onura estrategiko eta ekonomikoak Zuzenak



Kontratu bat edukitzeak laguntza batek baino onura gehiago ematen ditu ("ez iezadazu diruz lagundu, eros nazazu")



Aurretiazko I+G proiektuetan egindako inbertsioak kapitalizatzen ditu



Nazioartean saltzea ahalbidetzen duen erreferentziazko lehenengo bezero bat eskaintzen du



Etekinak lortzea errazten du patenteen ustiaketa komertzialaren bidez



Berrikuntza-zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeentzat (kontsultariak, unibertsitateak, etab.), negozio-eremu berri bat sortzen da



Enpresa lehiakorragoak sortzea errazten du, balio erantsi handiko produktu eta zerbitzu berriak sortuz

### Onura estrategiko eta ekonomikoak Zeharkakoak



Enpresa txikien susperraldi ekonomikoa bultzatzen du, horien eraldaketa lehiakorra sustatuz



Etorkizunean kontratuak irabazteko aukerak areagotzen ditu



Publizitate positiboa sortzen du, enpresa, zentro edo start-uparen ospea hobetuz



Erregistratutako patenteen kopurua handitzen du

Jarraian, etekin erlazionalen kategoria erakusten da, zuzenak eta zeharkakoak bereiziz:

### 5.1.2 Etekin erlazionalak **Zuzenak**



Nazioarteko negozio-garapenerako gaitasuna duten enpresa handiekin partzuergoetan parte hartzeko abagunea



Kontratazio publikoko prozeduren ulermena eta merkatu honetarako sarbidea hobetzen ditu



Administrazio publikoen lehtasunen ulermena hobetzen du eta B2G aukera berriak irekitzen ditu



Enpresen nazioartekotzea errazten du



Erakustaldi-agertokiatarako sarbidea ingurune errealetan (ospitaleak, eskolak, eraikin publikoak, besteak beste)



Produktu eta zerbitzu berritzaileen garapenean arriskuak eta etekinak administrazio publikoekin partekatzea ahalbidetzen du

### Etekin erlazionalak **Zeharkakoak**



Lotura handiagoa zentro teknologikoeikiko eta berrikuntza-zentroekiko, arazo errealak konpontzeko



Beste sektore batzuetarako ezagutza-transferentzia bat egiten da eta industria berriak garatzeko aukera sortzen da




Eragileen arteko lankidetzeta bultzatzen du, gaitasun berriak lortzeko



Berrikuntzarekin lotutako tokiko, Estatu edo Europako funtsak lortzeko aukera-leiho berri baterako sarbidea

### 5.1.3 Enpresentzako eta ekintzaileentzako eragin orokorra


Aurreko puntuan adierazitako etekinak osatzeko, Manchester Institute for Research and Innovation Zentroak argitaratutako azterlan baten emaitzak aurkezten dira; hain zuzen ere, horrek adierazten du, enpresek kontratu publikoak irabazten dituztenean, “requiere que innoven,”<sup>2</sup> BEPko prozesuen kasuan bezalaxe, honako eragin zuzen hau lortzen dela:



<sup>2</sup> Edler, J., Georgioui, L., Uyarra, E., Yeow, J. (2011) Procurement and Innovation: Underpinning the debate.

## 5.2 Babes ekonomikoa – Eskaintzarako finantzatresnak

Administrazio publikoei berritzen eta BEPko prozesuak abian jartzen laguntzeko finantza-tresnak existitzen diren bezalaxe, badaude beste tresna batzuk eskaintzari BEPren esparruan parte hartzen laguntzeko. Jarraian, Estatu mailako bi jasotzen dira:



### a) INNODEMANDA-CDTI- 2011 Programa

INNODEMANDA Programa eskaintza teknologikoari berrikuntzaren erosketa publikoko prozesuetan lehiatzen laguntzeko tresna bat da. Enpresek lizitazio publiko batean eskatutako berrikuntza teknologikoaren kostua finantzatu ahaliko dute; horrela, erakunde kontratatzaileak eskaintza lehiakorragoak izango ditu eta produktu eta zerbitzu berritzaileen presentzia handiagoa erraztuko da administrazioan.

Tresna hau CDTIk finantzatzen eta kudeatzen du eta erakunde publiko kontratatzaileei zein balizko hornitzaileei eskainiko dizkie beharrezko orientazioa eta babesa, berrikuntzaren balizko erosketa publikoen identifikaziorako eta INNODEMANDA Programaren aplikaziorako.

Programa Atxikitze-protokoloa izeneko hitzarmen bat sinatuz formalizatzen da eta, bertan, besteak beste, lizitazioaren mugarri nagusiak, epeak, baldintzak eta araudi aplikagarriak zehazten dira.

Lizitazioaren dokumentuetan, kontratazio-organoak jarduera hori CDTI bezalako finantza-entitate batek kofinantzatu ahaliko duela jaso beharko du. CDTIk, ebaluazio azkarreko sistema baten (fast track) bidez, finantzaketa-eskaera berrikusten du, epeak lizitazioarekin sinkronizatzeko eta horren prozesuan atzerapenak saihesteko.

### PROZESUA HONELA LABURBILTZEN DA:

1. Kontratazio-organoak "Atxikitze-protokoloa" sinatzea.
2. Lizitazioaren iragarkia CDTI aukera barne hartuz.
3. CDTIri finantzaketa-proposamenak eskatzea (>175.000 € I+G).
4. Kontratazio-organoaren ebaluazioa eta ebazpena.
5. Eskaintzak aurkezteko epemugaren jakinarazpena.
6. CDTIk proposamenak ebaluatzeko prozedura azkarra.

## **b) Eskari publikora zuzendutako irtenbide berritzaileetarako interes-adierazpenetarako deia-2019**

Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTI) berriki sortu egin du Erosketa Publiko Berritzailearen Bulegoa (OCPI). Horren helburua, funtsean, BEP Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoaren (MAEP) modalitatean bultzatzea da. Ekimen hau EGEF funtsekin batera finantzatu da.

Tresna honen bidez, CDTI I+G zerbitzuak eskuratuko ditu, hain zuzen ere, proba-serieko formako lehenbiziako produktuen edo zerbitzuen prototipoak izan daitezkeenak, teknologikoki berritzaileak direnak eta premia publikoak asetzen dituztenak.

Hala badagokio, garatzen den prototipoa horrekiko interesa duen eta proposatutako teknologia balioztatzekeo beharrezko ingurune erreala sor dezakeen administrazio publikoari lagako zaio. Prototipoa eskusiboki erabili beharko da teknologia balioztatzekeo, geroke merkataritza-helbururik gabe. Eskari publikora zuzendutako konponbide berritzaileentzako interes-adierazpenen deia bidez, I+G zerbitzuen balizko hornitzaileen, ahal bada, enpresen proposamenak biltzen dira, etorkizuneko lizitazioetarako ideien gordailua izan daitezten.

Interes-adierazpenen deia 2019ko maiatzaren 30era arte egon zen irekita, zehazki, penintsulako 12:00ak arte. Interes-adierazpen bat aurkezteko, erabiltzailearen gune pribatuan zegoen dokumentazioa elektronikoki bete eta bidali behar zen.





Bestalde, interes-adierazpenaren balioztapena **hautagarritasun-baldintza** batzuen pean zegoen:

- Proposatutako teknologia 4 eta 6 bitarteko heldutasun-maila batean (TRL[1]) egon behar zen, 6 eta 7 bitarteko TRL batera eramateko edo, bestela esanda, administrazio publiko batek bere erabilera ingurune erreal batean balioztatzeko moduko maila nahikora eramateko.
- Estatuko Administrazio Orokorrean, konponbide berritzailean interesa duten administrazio publikoak honako autonomia erkidego hauekaren bateko tokiko entitateak edo erkidegoko entitateak izan behar ziren: Andaluzia; Kanariak; Gaztela-Mantxa; Gaztela eta Leon; Valentziako Erkidegoa; Galizia edo Extremadura.
- Teknologia lerrokatuta egon behar zen Estatuko Zeintzia, Teknologia eta Berrikuntzako Estrategian proposatutako helburuetakoren batekin eta/edo RIS3[2] Estrategiaren helburuetakoren batekin; halaber, beharrezkoa da 2014-2020 EGEF[3] araudiak baztertutako sektoreetako ez izatea.

- Teknologia berritzailea aurretik aipatutako administrazio publikoen benetako premia publiko bat asetzerazuzenduta egon behar zen.
- Azken prototipoa balioztapen teknologikoko helburuetarako besterik ez zen erabili behar. Edonola ere, azken prototipoa ezingo litzateke komertzialki erabili edo ustiatu.
- Prototipoa egiteko beharrezkoak diren ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko lanen iraupena ezingo litzateke bi urtetik gorakoa izan.
- Ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko lanek irismen nabarmena eduki behar zuten; izan ere, gehiago balioztatzen ziren eragin sozioekonomiko altuagoa eragin lezaketanak.

### **Jabetza intelektualaren eskubideak:**

- Entitateak konpromisoa hartzen zuen CDTIri/lagapen-hartzaileari Jabetza Intelektualaren Eskubideak[4] sortzen dituzten emaitzetarako doako sarbide mugagabea lagatzeko eta hirugarrenei ere sarbidea emateko.
- Entitateak konpromisoa hartzen zuen CDTIri/lagapen-hartzaileari Jabetza Intelektualaren Eskubide guztiak lagatzeko, Jabetza Intelektualaren Eskubiderik sortzen ez duten emaitza guztiei hedapen zabala emanez, besteak beste, argitalpenaren, irakaskuntzaren edo normalizazio-organismoetarako ekarpenaren bidez, beste enpresa batzuek horiek erreproduzitu ahal izateko.

### c) Zientzia eta berrikuntzarako Txoke-plana

Zientzia eta berrikuntzarako txoke-plana sistema eusteko sortzen da; izan ere, sistemak hamarkada bat baino gehiago darama baztertuta, murrizketen ondorioak eta erreforma politikarik ezaren ondorioak pairatzen.

I+G+B sistema publikoa eta pribatua premiaz energizatzeko plan honek epe laburrerako horizonte bat dauka: ekimen guztiak 2020an eta 2021ean abiaraziko dira eta 3 ardatz nagusiren inguruko 17 neurritan artikulatzen da.

Zehazki, inbertsioetarako 1.056 milioi euro aurreikusten ditu, baita susperraldi :

Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoa tresna garrantzitsua da eta entitateek eta ikerketa-zentroek prototipoak erostera hedatzen da; horretarako, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTI) kudeatutako 52 milioi euro bideratzen dira.

Horrez gain, planak beste neurri batzuk jasotzen ditu, adibidez, EGEF Funtsekin Bide-azpiegituretarako Berrikuntzaren Erosketa Publikoa finantzatzera zuzendutako 100 milioi euroak.

Zientzia eta Berrikuntzarako Txoke-plana hiru ardatz hauetan artikulatzen da:

- 1. ARDATZA: Ikerketa eta berrikuntza osasunean
- 2. ARDATZA: Zientzia-sistemaren eraldaketa eta talentuaren erakarpina eta atxikipena
- 3. ARDATZA: ENPRESEN I+G+B ETA ZIENTZIAREN INDUSTRIA BULTZATZEA

Zehazki, 3. ardatzaren barruan, honen inguruko 17. neurria dago: “Zientziaren industriaren garapena”.

Programak honako ikerketa- eta teknologia-zentro eta entitate hauei prototipoak erostea sustatuko du: ezagutza berritzaile bat ustiatzen duten start-upak garatu nahi dituztenak edo ezagutza teknologiko hori industrializatzeke eta merkaturatzeko gaitasun teknologikoa duen enpresa batekiko lankidetzat proposatzen dutenak.

Programa honen aurreikusitako inbertsioa 2 milioi eurokoa da. Programa 2020an abiarazi zen pilotu gisa eta bere ezarpena 2021ean garatuko da, aurreikusitako 50 milioi euroko inbertsio batekin, ezaugarri horiek dituzten enpresa-proiektuetan zuzenean inbertituz.

3. ARDATZA. 17. NEURRIA - Zientziaren industria garatzea	Funtsak (M €)
Erosketa publiko aurre- komertziala zientzia industriarentzat	52
GUZTIRA	52




### 5.3 BEPko prozesua: eskaintzarako jarduketabide nagusiak

Behin BEPko prozesua eskariaren ikuspegitik aztertuta, eskaintza teknologikotik egiteko unea da. Eskaintza teknologikoak BEPko prozesuetan parte hartzeko estrategia bi jarduketa-bidetan banatzen da, eskaintzaren eta eskariaren arteko integrazioa lortzea ahalbidetzen dutenak, I+G+b proiektuen garapenean benetako lankidetzat lortuz eta bi aldeentzako etekinak sortuz. Hauek dira bi bideak:

- **BEP Proaktiboa:** eskaintza teknologikotik abiatutako estrategia proaktibo bati dagokio, produktu edo konponbide berritzaileen ideien bat-bateko (eskatu ez diren eskaintzak) hurbilpenaren edo aurkezpenaren bidez edo maila sektorialean artikulatutako bidez (eskaintza teknologikoaren katalogoak)
- **BEP erreaktiboa:** administrazio publikoak aitortutako eta merkatuko eskaintzaileek berrikuntzarekin asetzeari nahi duen (lantegietan parte hartzea eta merkatuari zuzendutako kontsultak) aukerei edo premiei erantzuteko estrategia bati dagokio.

#### Arrakasta-faktore erabakigarria



### 5.3.1 BEP Proaktiboa

BEP Proaktiboa izeneko jarduketa-bidea eskaintza teknologikoak ideia berritzaileak proposatzean datza.

Administrazio publikoak, eskatu ez diren eskaintzak kudeatzeko, sistematizatutako prozesu bat ezar dezake, modu proaktiboan produktu edo zerbitzu berrien proposamenak edo ideiak aurkezten dituzten berrikuntza-enpresen edo organismoen eskaintza berritzaileak baliatzeko. Eskaintzak jasotzeko leihatila bakarrak sor daitezke eta horien segimendu eta ebaluaziorako

prozesu bat diseinatu. Horrela, antolakuntza publikoek enpresek, unibertsitateek, zentro teknologikoek eta berrikuntza-teknologikoek aurkeztutako eskaintzak hartu ahalko dituzte kontuan, horretarako lizitazio-prozedurarik abiarazi ez bada ere.

BEP Proaktiboaren barruan, bi jarduketa-mota nagusi\* daude:

#### *Eskatu ez diren eskaintzak*



Beharren  
identifikazioa



#### *Produktuen / zerbitzuen katalogoa*



Beharren  
identifikazioa



(\*) Aurkeztutako jarduketa bakoitza BEPko prozesu bateko hiru etapekin lotuta dago – Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa, dagokion jarduera-zenbakia esleituz

Ikus Administrazio publikoaren 4.3 KPI prozesua.

### a) Eskatu ez diren eskaintzak



Beharrak identifikatzeko, administrazio publikoek ekimen desberdinak abiarazi ditzakete. Adibidez, gai edo sektore jakin bateko eskaintza teknologikora hurbiltzeko saioak deituz, “berrikuntza-casting” gisa. Horietan, gonbidatutako entitateek aurretiaz proposatutako gai baten inguruan lantzen ari diren edo interesatzen zaizkien ideiak aurkeztu ahalko dituzte.

“Berrikuntza-casting” bat eskaintza eta eskariaren interrelazioarako tresna bat da, aukera ematen duena unibertitateen eta enpresa berritzaileen I+G+b konponbideekin lotutako gaitasunen eta aurrerapenen proposamenak azkar ezagutzeko, horrela eskariaren premia bati erantzuteko.


Aitzitik, aurretiaz sistematikoki identifikatutako premiei edo premia berriei erantzuten dieten konponbideak biltzeko prozesurik ezarri ez bada, entitate publikoek “leihatila bakar” bat gai dezakete, posta elektronikoko baten bidez eskatu ez diren eskaintzen proposamenak jasotzeko.

Mekanismoa administrazio publikoaren webgunean espazio bat gaituz abiaraziko da, eskaintza teknologikoaren ideia/konponbide/proposamen horiek jasotze aldera. Leihatila hori ez da ekitaldi edo momentu zehatz baten menpe egongo, baizik eta etengabe irekita eta, gainera, BEPko lantaldeak maiz berrikusiko du.

Beharren  
identifikazioa



Eskaintza teknologikoak eskatu ez diren eskaintzen proposamenak bidali ahalko ditu bide hau erabiliz. Horretarako, komeni da, Eskari Goiztiarraren Mapa bat existitzen bada, hori kontuan har dadila. Eskari Goiztiarraren Mapak merkatuari aurreratzen dizkio administrazio publikoen premiak. Hortaz, enpresei informazio baliotsua ematen die, I+G+b ekimenak etorkizuneko lizitazioetara orientatzeko. Beste modu batera esanda, Eskari Goiztiarraren Mapa erakunde publikoak epe laburrera eta ertainera dituen kontratazio-planak islatzen dituen dokumentu bat da.



II. eranskinean. Eskaintza teknologikoak erabili beharreko fitxak – a) Hauxe barne: “Eskatu ez diren eskaintzak proposatzeko eredu-fitxa”

**b) Produktu/zerbitzuen katalogoak**Beharren  
identifikazioa


Bestalde, premien identifikazioan parte hartzeko bigarren aukera bat izan daiteke, posible bada, produktuen eta zerbitzuen katalogo baten lanketa, bidalketa eta aurkezpena.

Produktuen eta zerbitzuen katalogoa tresna interesgarria da edozein enpresaren produktuak promozionatzeko.

Katalogoa diseinatzeko, haxe hartu behar da kontuan: nolakoa da enpresa; zeintzuk dira saltzen dituen produktuak; nori zuzenduta daude eta zeintzuk dira katalogoa egitearen helburuak.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoari dagokionez, teknologia/ produktu/zerbitzu bakoitzaren artearen egoera zehaztu beharko da eta merkatuan dagoeneko dauden edo garatzen ari diren produktuak eta horiekin lotutako TRLa identifikatu beharko dira. Azken horiek izango dira BEPko prozesu bat aktibatutako ahalko dutenak, hain zuzen ere, 3.2. atalean aipatzen den bezala. Zer da BEP? BEP ez da merkatuan dagoeneko dauden produktu berritzaileak erostea.

Horrela, administrazio publikoek kontuan hartu ahalko dituzte enpresek, unibertsitateek, zentro teknologikoek eta berrikuntza-zentroek borondatez aurkeztutako eskaintzak, horretarako lizitazio-prozedurarik abiarazi ez den arren.





### a) Lantegiak



Eskaintza teknologikoaren parte-hartzea errazteko aukeretako bat da eskariak egiaztapeneko lantegia eta bilerak antolatzea, zehazki, enpresekin, start-upekin, unibertsitateekin, I+G+b zentroekin eta ekintzaileekin.

Lantegietan, administrazio publikoak eskaintzarekin biltzen dira, identifikatutako BEPko erronkak aurkezteko eta, horrela, hauxe aztertzeko:

- Erronken berrikuntza-maila (konponbidea merkatuan dagoen edo ez)
- Eskaintza teknologikoaren interesa erronkari aurre egiteko
- Enpresa-egituraren gaitasunak premia bati konponbide-proposamen berritzaile batekin erantzuteko
- Eta, azkenean, erronka zehazten eta eraikitzen amaitu, merkatuari alde aurretik egindako kontsultetan partekatutako dena

Horrelako lantegiak administrazio publikoek bere Eskari Goiztiarren Mapa sortzeko burututako premiak identifikatzeko etapetan egin ohi dira, baita merkatuari zuzendutako aurretiazko kontsultak prestatzeko fasean ere.

Jotzen da jardunbide egokia dela horrelako saioetan parte hartzea; izan ere, konponbidea garatzeko balizko kolaboratzaileak izan daitezkeen beste enpresa, start-up eta ekintzaile baztutik ezagutzen dira eta, gainera, hasieratik ezagutzen dira “bezeroaren” erronka eta premia erreala.

Beharren  
identifikazioa

1

Merkatuaren  
kontsulta plazaratzea

2





## b) Merkatuari aldez aurretik egindako kontsultak



Merkatuari aldez aurretiko kontsulta egiteko fasea kontratuaren aurreko fase bat da eta entitate kontratatzaileak ase nahi dituen premietatik abiatzen da; beraz, aurretiatzko ikerketatzat hartu behar da. Kontsulta hau ekimen pribatuarekiko komunikazioa edukitzeko asmoarekin burutzen da, parte hartzeko eta erronkari produktu/zerbitzu berritzaile baten bidez konponbide bat jartzeko ideiak eta proposamenak jasotzeko interesa dagoen edo ez jakiteko.

Zergatik da beharrezkoa merkatuari kontsultak egitea? Administrazio gehienak, bere arazoentzako konponbideak irudikatu ezin dituzten arren, gai direlako lortu nahi dituzten emaitzak adierazteko. Hortaz, helburu nagusia da balizko hornitzaileak eragile aktibo bihurtzea, administrazio publikoaren egungo arazoentzako konponbideen definizioan parte har dezaten.

### Merkatuari aldez aurretik kontsultatzeko prozesua

- **Abiaraztea:** merkatuari kontsultak egiteko prozesua deialdia abian jartzearekin eta kontratatzailearen profi lean eta aldizkari ofizialetan argitaratzearekin hasten da. Fase honekin jarraitzeko, administrazio publikoak kontsulta hedatzen du eskaintza teknologikoaren artean; horretarako, formatu desberdinak aplika daitezke eta horiek kontsultaren xedearen arabera hautatuko dira. Gaur egun, gero eta ohikoagoa da sare sozialen erabilera. Edonola ere, entitate publikoak parte hartzeko jarraibideak hedatuko ditu, baita

Merkatuari  
kontsulta plazaratzea



Konponbide  
berritzaileen  
proposamena



Eskaintzaren eta  
eskariaren arteko  
elkarrizketa



aurretiatzko premiaren fitxa ere, erronkaren xehetasunak jasoz.

- **Garapena:** behin kontsulta merkatura irekita, eskaintza teknologikoak epe zehatz bat izango du, entitate kontratatzaileak proposatutako erronka gaitzeko konponbide berritzaile aurkezteko. Ideia hauen bilketa konponbide berritzaileen proposamen-fitxa baten bidez egiten da. Entitateak erabakiko du fitxa horien bilketa PDF bat betez eta hori helbide elektroniko batera bidalitzeko, plataforma batera igoz edo eskaintza eta eskaria kudeatzeko plataforma bat erabiliz egingo den.
- **Ebaluazioa:** azkenik, merkatuari egindako kontsul ten prozesua ixten da. Fase hau osatzen dute administrazio publikoek burutu beharreko ixteko eta ebaluatzeko jarduerak zein prozesuaren emaitzen hedapenak eta aurkezpenak. Behin amaituta, aztertzen da premiak jasotako proposamenekin ase ahal diren eta CPMko txosten bategiten da, kontsulta ixtea dakarrena. Txosten honetan, hauxe argitaratu behar da: erakunde parte-hartzaileen zerrenda; interesgarritzat jo diren ideien ehunekoa modu agregatuan eta erronka bera, termino funtzionaletan, etorkizuneko lizitazioaren pleguak egiteko inputa izango diren intereseko alderdi guztiak barne hartuz. Momentu horretatik aurrera, entitate kontratatzaileak egokitzen jotzen badu, lizitazio-prozedura bultzatzen da.

**II. eranskinean.** Eskaintza teknologikoak erabili beharreko fitxak - b) Adibide gisa gehitzen da honakoaren eredu bat: "Konponbide berritzaileak proposatzeko fitxa"

### **Merkatuari alde aurretik egindako kontsultetan kontuan hartu beharreko alderdiak**



Garrantzitsua da azpimarratzea, nolahi ere, merkatuari kontsultak egiteko prozesuan zehar, kontratazio-organoak ez dizkiela parte-hartzaileei jakinaraziko beste parte-hartzaileek proposatutako konponbideak.

Era berean, entitate publikoak ez du esango parte-hartzaile bakoitzak proposatutako ideia interesgarritzat jo den edo ez. Aipatu den bezala, merkatuari kontsultak egiteko prozesua ixteko txostenean, datu agregatuak erakutsiko dira; bertan, aukera egongo da interesgarritzat jo diren ideien kopurua edo ehunekoa adierazteko eta berriz ere sartuko da erronkaren beharraren fitxa, oraingoan, merkatuari alde aurretik egindako kontsultetan jasotako intereseko kontzeptuekin beteta.

Prozesu osoan zehar, derrigorrezkoa da printzipio orokor hauek errespetatzea: lehia askea, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta gardentasuna.

Azkenik, merkatuari egindako kontsultak zehaztuko dukontratazioaren xedea dagoeneko eskuragarri dauden produktuekin edo zerbitzuekin lotuta dagoen edo elementu berritzaileak diren eta/edo existitzen diren beste batzuekiko alda daitezkeen, zehaztutako premiak asetzeko.

### **Zer onura dakartza merkatuari kontsulta egiteak?**

CPMek onura handiak eskaintzen dizkiote eskaintza teknologikoari eta, horien artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Administrazio publikoaren benetako beharraren ezagutza eta hori erreferentziarako bezero bihurtzeko aukera.
- Eragina etorkizuneko balizko lizitazioan, entitatearen I+G+b lerroen apustu edo ideia bat proposatzeagatik.
- Zerbitzu publikoak hobetzea eragin dezaketen berrikuntza-maila altuko konponbideak indartzeko aukera.
- Interrelaziorako eta lankidetzarako erraztasuna berrikuntzaren ekosistemaren eragileen artean (enpresak, ikerketa teknologikoko eta berrikuntzako zentroak, unibertsitateak, garapen-agentziak, besteak beste).



### c) Kontratu-prozesua



Eskaintza teknologikoak BEPko prozesuan parte hartzeko azken modua eta, gainera, ohikoena kontratu-prozesua da.

Behin merkatuari aldez aurretik egindako kontsulten ideiak jasota eta ebaluatuta, organo kontratatzaileak erabakiko du horrekin lotutako lizitazio baten argitalpenerako prozesua abiarazten duen. Zentzu horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea jardunbide orokorra argitalpena izango dela; hala ere, CPM bat egiteak ez du inola ere behartuko entitatea hori egikaritzera. Produktu/zerbitzu berritzaileen entitate kontratatzaileak hedatuko duen erronka erabakitakoan, pleguak lantzen hasiko da eta erabiliko den esleipen-prozedura zehaztuko du.

BEPko prozesu baten ondoriozko lizitazioak ohiko kontratazioak bezalaxe argitaratzen eta tratatzen dira; horrenbestez, kontratatzailearen profila zein, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, EHAA Aldizkari Ofiziala erabiltzen dira.

Bestalde, BEPko prozesuak kontratu-mota berri bat edo esleipen-prozedura berri bat ez izan arren (9/2017 Legean jasotakoak erabiltzen dira – Sektore Publikoko Kontratuen Legea), badituzte kontuan hartu beharreko zenbait berezitasun.



Jarraian, kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak aipatzen dira. Kontratazio-prozesu batean arrakasta lortzeko duten garrantzia dela-eta, xehetasun gehiagorekin azalduko dira 6. atalean. Zer hartu behar dut kontuan BEP eskaintza bat aurkeztu edo horietako batean parte hartu nahi dudanean?

- Pleguen ikuspegi funtzionala eta balio-proposamena
- Produktu/zerbitzuaren bizitza-zikloa
- Adierazleak



## 5.4 Zer hartu behar da kontuan BEPko prozesuetan parte hartzeko eta BEPko eskaintza bat aurkezteko – kontratu-etapa

Behin BEPko erronkaren lizitazioa argitaratuta (prozesuaren 6. urratsa), eskaintza teknologikoaren proposamenak horren funtsezko alderdiak hartu beharko ditu kontuan: kontratuaren xedea, irismena, balorazio-irizpideak, egikaritzapen-epeak, fakturazio-mugarriak eta parte hartzeko baldintzak, besteak beste.

BEPko prozesuaren ondoriozko kontratuetan, hauek dira BEPko prozesu baten hiru etapekin lotutako kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Pleguen ikuspegi funtzionala eta balio-proposamena
- Produktu/zerbitzuaren bizitza-zikloa
- Adierazleak



### 5.4.1 Pleguen ikuspegi funtzionala eta balio-proposamena



BEPren kasuan, tokiko erakundeak gai izan behar dira bere premiak adierazteko, eskaintzaileek proposamen berritzaileak egitea errazten duten zehaztapen funtzionalen multzo baten bidez, hain zuzen ere, baldintzatzaile gisa jarduten duten aurretiazko betekizun tekniko oso zorrotzik gabe. Horrenbestez, BEPn, erreferentziazko terminoek ez dituzte izango konponbidearen berariazko errekerimenduak, baizik eta garatu beharreko produktuak edo zerbitzuak ase beharko duen premiaren betekizunak eta ezaugarriak.

Ikuspegi funtzional honek berrikuntzen garapena errazten du, zehazki, entitate kontratatzaileak adierazitako premietatik abiatuta.

BEPko pleguetan, hiru betekizun-mota egon daitezke:


BETEKIZUN FUNTZIONALAK	IRUDI-BETEKIZUNAK	KANPOKO ETA BARNEKO BETEKIZUNAK
Zeintzuk dira sistemak bete beharreko funtzioak? Zer elementu edo osagai bete behar du?	Garatuko den zerbitzu/produktuaren berariazko ezaugarriak, helburu nagusia zeharkako ekarpena izango dutenak.	Nola txerta ditzaket elementuak barnealdean eta erakundearen edo enpresaren ingurunean?

(\*) Aurkeztutako jarduketa bakoitza BEPko prozesu bateko hiru etapekin lotuta dago – Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa, dagokion jarduera-zenbakia esleituaz

## Balio-proposamena

BEPko prozesuetara aurkezteko erronkak, berrikuntzaren kultura bat edukitzeaz gain, proposamen teknikoak ulertzeko modua aldatzea eta balio-eskaintzan pentsatzea dakartza.

Balio-eskaintzak proiekturako balizko lan-metodologia bat, kronograma bat eta aurrekontu bat baino askoz gehiago jasotzen duten proposamenak dira. Horiek eskatzen dute produktua osotasun bat bezala kontuan hartzeko eta bizitza-zikloa etorkizunean produktua ustiatzeko eta merkaturatzeko funtsezko faktore gisa proiektatzeko, hau da, proposatutako konponbidearekin lotutako eta betetze-adierazle batzuen menpeko negozio-plan bat egin behar da. Jarraian, grafikoki irudikatzen dira balio-eskaintza baten eta eskaintza tekniko baten artean dauden desberdintasunak.



*Horretarako, BEPko prozesuan argitaratzen diren Baldintzen Pleguen, Administrazio-klausulen Pleguaren eta Zehaztaper Funtzionalen Pleguaren barruan, lege ezarritako betekizunez gain, administrazio publikoek berrikuntzaren balorazioaren inguruko alderdiak jasotzen dituzte.*

Balio-eskaintzen garapenean, iradokitzen da nazioartean BEPKo prozesuetan parte hartu duen eskaintza teknologikoaren

esperimentzietatik bildutako honako gomendioak eta jardunbide egokiak kontuan hartzea:

*Proiektuaren garapenaren esperientzia eta gaitasunak erakustea eta hirugarren pertsona batekin egin nahi den edo osagairen bat ezezaguna den adieraztea, hori espero den baterako sorkuntzaren parte delako*

2

*Konponbidearen jasagarritasunari eta berrikuntzari buruzko berariazko atal bat edukitzea*

4

*Proiektuak bizitza-ziklo osorako izan ditzakeen arriskuen analisia aurkeztea*

6

1

*Eskaria ulertzea, hau da, jakitea zeintzuk diren konpondu nahi duenaren gaineko itzaropenak eta konponbide sortzaileak eta errealistak proposatzea*

3

*Proposamena produktu/zerbitzuaren azken erabiltzailearen ikuspegiarekin egin behar da (Design Thinking), horrek balio gehiago emango diolako*

5

*Proiektuaren plangintza eta proiektuaren etapen eta produktuaren bizitza-ziklo osoaren kostuaren justifikazio xehea aurkeztea; hori Estatu zein nazioarteko mailako proiektzioa eta eskalagarritasuna edukitzeko pentsatutako proposamen bat bezala ulertuko da*

**«Balio-eskaintzek entitate kontratatzailea harritu behar dute, ulermena erakutsi behar dute, baita arima ere!»**


## 5.4.2 Produktu/zerbitzuaren bizitza-zikloa

Produktuaren bizitza-zikloa produktu fisikoaren prozesuaren ulermena deskribatzea eta bermatzea ahalbidetzen dituen tresna bat da, hain zuzen ere, fabrikazioaren hasieratik bere bizitzaren amaierara arte. Hauek dira analisia banatzen den fase nagusiak: produkzioa, banaketa, erabilera eta produktuaren bizitzaren amaiera.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoei eta balio-eskaintza prestatzeari begira, ariketa hau baliagarria da kontuan hartu behar diren alderdiak identifikatzeko, produktu/zerbitzu baten bizitza-ziklo osoari estaldura emateko xedearekin.

Funtzionalitateei produktuaren bizitza-ziklotik heltzea funtsezkoa da BEPko prozesurako; izan ere, aukera ematen du konponbideak duen eragina dimentsionatzeko, ezarpena egiterakoan ez ezik, erabileran, mantentze-lanean eta bajaran ere bai. Horrek konponbideen balizko onurak eragin ditzake.

Berriro ere, fase nagusien barruan, beste batzuk bereizten dira, produktuaren funtzionalitateen arabera. Adibide gisa, honako hauek gehitzen dira:



Iturria: Berezko lanketa



### 1. PRODUKZIOA

- Diseinua
- Erosketak
- Fabrikazioa eta muntaketa



### 2. BANAKETA

- Garraioa eta biltegitratzea



### 3. ERABILERA

- Instalazioa
- Operazioa
- Mantentze-lana eta konponketa



### 4. BIZITZAREN AMAIERA

- Desmuntaketa, birziklapena eta hondakinen tratamendua

### 5.4.3 Adierazleak

Adierazleak gertaera kolektiboak kuantitatiboki edo kualitatiboki neurtzen edo objektibatzen saiatzen diren aldagaiak dira, zehazki, horrela ekintzak babestu ahal izateko. Informazioa biltzeko erabiltzen dira, sistema edo prozesu batek bere helburua betetzeko abian jartzen dituen ekintzen segimendua egiteko eta ekintza horiek doitzeko.

Adierazleek errealitatearen fenomenoak, ezaugarriak edo portaerak deskribatzea ahalbidetzen dute, bere bilakaeraren bidez edo aldagaien arteko harreman bat ezarriz; hala, harreman horrek, aurreko aldiekin alderatuta edo helburu edo konpromiso baten aurka alderatuta, jarduera eta horrek denboran zehar izandako bilakaera ebaluatzea ahalbidetzen du.

Adierazleak erabakiak hartzeko tresna baliogarria izateko eta balioa eransteko, beharrezkoa da horietako bakoitza modu logiko eta integral batean garatzea, kontuan hartuta neurtu nahi denaren ezaugarriak eta testuingurua, informaziorako sarbidea eta neurtzeko modua. Ulertu behar da adierazleek oinarritzko bi funtzio betetzen dituztela:

- Funtzio deskribatzailea ataza edo ekintza baten aurrerapen-egoera ikustea ahalbidetzen duen informazioa identifikatzean datzana.
- Funtzio ebaluatzailea infomazio deskribatzaileari ahalik eta objektiboena den eta neurtzen denari zenbakizko balioa ematen dion balio-judizio bat gehitzean datza.

Ez dago jarduketa-maila bat neurtzeko “*adierazle zuzenen*” multzo berezigarriarik. Hala ere, ziurtasun-maila desberdinekin aldagaien aldaketa neurtzeko balizko seinaleen tarte bat existitzen da. Egile desberdinen adierazleen ezaugarrien inguruko erreferentziak kopuru handiago baten edo txikiago baten artean aldatzen dira, baina, oro har, hauek dira “*adierazle on*” baten ezaugarri nagusiak: neurgarria, zehatza, trinkoa, eta sentikorra. Halaber, gomendatzen da BEPko proiektuen adierazleak praktikoak eta baztertzaileak ere izatea.

Jarraian, aurretik aipatutako adierazleen ezaugarriak garatzen dira.





### NEURGARRIA

Adierazle bat neurgarria izan behar da termino kuantitatibo zein kualitatibotan. Adierazle baten erabilgarritasunik handiena da neurtutako egoeraren eta espero den egoeraren arteko konparazio bat egin ahal izateak.



### ZEHATZA

Adierazle bat zehaztasunez definitu behar da eta argia izan behar da, hau da, ez du interpretazioetarako edo zalantzetarako aukerarik utzi behar jaso beharreko datu-motari dagokionez.



### TRINKOA

Adierazle batek ematen duen balioa denboran trinkoa izan behar da eta interes-baldintza baten aldaketen gaineko neurri fidagarria eman behar du.



### PRAKTIKOA

Informazioaren bilketa eta horren analisisa prozesua sinplea eta erraza izateko egituratuta egon behar dira.



### BAZTERTZAILEA

Adierazle batek aldagai bakar bat aztertu behar du eta ez ditu aldagai asko aldi berean aztertu behar. Gerta daiteke aldagaiak beste batzuei eragitea, baina neurketa eremu bakar batera mugatu behar da.



### SENTIKORRA

Adierazle bat aldagai batek denboran zehar izandako aldaketa edo eraldaketa islatzeko gai izan behar du.

Normalean, adierazleen diseinuak eta elaborazioak eta dagozkien sailkapenak malgutasun handia ematen dute kontrolatu edo ebaluatu behar denaren arabera. Hala eta guztiz ere, BEPko proiektu batean bultzatutako jardueren edo ekintzen jarduna ebaluatzen duten adierazleen multzoa sortzeko, adierazle-taldeak hartuko dira kontuan, monitorizazioaren xede den prozesuari dagokionez duten posizio erlatiboaren arabera:



**Input-adierazleak – sargaia:** ekimen bat hasterakoan dauden finantza, giza, material eta antolakuntzako baldintzen segimendua egitea ahalbidetzen dute. Horrela, ekintza edo jarduera bat burutzeko beharrezkoak diren oinarrizko baldintzen erabileraren eta eskuragarritasunaren segimendua egin daiteke.



**Prozesu-adierazleak:** proiektuarekin lotutako jarduera edo ekintzen garapenaren eraginkortasuna eta errendimendua neurtzea bilatzen dute. Adierazleek prozesuan esku hartzen du(t)en pertson(ar)en kudeaketa neurtzen dute (kualitatiboki eta kuantitatiboki), baita eskuragarri dauden finantza-baliabideen eta baliabide teknikoaren erabilera ere.



**Produktu-adierazleak:** jarduerak garatzeko erabilitako baliabideen konbinazioaren emaitza erakusten dute.



**Eragin-adierazleak:** jarduketek proposamenaren garapenarekin esku hartu nahi zen ingurunearen barruan eragindako aldaketa edo eraldaketa islatzen dute.

<b>INPUTA</b>	Jarduera burutzeko eskuragarria dauden baliabideak.
<b>PROZESUA</b>	Jardueren garapenaren eraginkortasuna eta errendimendua.
<b>PRODUKTUA</b>	Eskuragarri dauden baliabideekin egindako jardueretatik lortutako emaitza.
<b>ERAGINA</b>	Gizartean, ekonomian edo enpresan sortutako eragina.

### a) Zergatik dira garrantzitsuak adierazleak BEPko proiektu batean?

Adierazleak neurketa-tresna gisa erabiltzea funtsezkoa da gertakarietan oinarritutako erabakiak hartzeko. Zehazki, BEPko proiektu baten barruan, adierazle-multzo baten segimenduak eta ebaluazioak aukera ematen dute proiektuaren bilakaeraren diagnostikoa egiteko, egindako aurreikuspenen lorpena ebaluatzeko eta beharrezko zuzenketak egiteko.

### b) BEPko lizitazio batera aurkezten den enpresa gisa, zer jakin behar dut adierazleei buruz?

Proiektua egikaritzen den bitartean eta proiektua amaitutakoan, bertan garatutako zerbitzuaren/ondasunaren emaitzak neurtu beharko dira. Horregatik, proiektuaren plangintza-etapan, berebizikoa izango da planteatutako helburuak neurtzea ahalbidetzen duten adierazleak zehaztea. Hortaz, entitate kontratatzaileak erreferentziatzko adierazle batzuk aurkez ditzake oinarri gisa, segimendua egiteko eta helburu bat lortzeko. Horrez gain, entitateei eska diezaieke bere proposamenerako adierazle-multzo bat proposatzeko edo, bestela, bi aukerak konbinatu, entitateak aurretik ezarritako oinarritzko adierazle batzuei segimendua egiteko eta berriak sortzeko eskatuz.

Egoera honen aurrean, bi galdera sortzen dira:

**Nola egin dezaket aurretik ezarritako adierazleen segimendua?**

**Nola sor dezaket adierazle-multzo berri bat?**

## **Nola egin dezaket aurretik ezarritako adierazleen segimendua?**

Entitate kontratatzailetik helburu batzuk lortzeko erreferentziazko zenbait adierazle proposatzen badira, honako metodologia hau gomendatzen da, entitate lizitatzaileak arrakastaz burutu dezan helburuen monitorizazio, segimendu eta betetzeko prozesua:



1

### **Adierazleen analisia**

Entitate kontratatzaileak proposatutako adierazleen analisi xehea egitea gomendatzen da:

- Neurketaren helburua.
- Adierazlearen xedea.
- Adierazle-tipologia.
- Datuak biltzeko iturria.
- Kalkulu-metodoa.
- Lehentasuna.
- Adierazlearekin lortu nahi diren emaitzak.



2

### **Proposamenaren analisia eta monitorizazio- eta segimendu-talde bat sortzea**

Behin adierazleen analisia eginda, enpresatik, lan egin behar da, eskainitako produktu edo zerbitzutik, planteatutako adierazleak nola elikatu ahal diren eta horiei nola erantzun ahal zaien jakiteko. Gomendatzen da adierazleen monitorizazio eta segimendurako talde bat sortzea; nagusiki, enpresako pertsonak osatuko dute taldea, baina, horiez gain, komenigarria litzateke entitate kontratatzaileko pertsonaren bat gehitzea. Taldea honetaz arduratuko da:


- Adierazlearen aldagai neurgarrien segimendua.
- Datuen bilketa eta eguneraketa.
- Ez-betetzeen balizko arriskuen identifikazioa.
- Lortutako emaitzak bideratzeko balizko neurriak hartzea.
- Adierazlearen helburuaren betetze-mailaren analisia.

### **Nola sor dezaket adierazle-multzo berri bat?**

Adierazle berriak lantzeko, aurretik aipatutako gutxieneko ezaugarriak hartu behar dira kontuan. Gainera, ezarritako adierazleen monitorizazio- eta segimendu-prozesua denboran etengabea den osotasun bat bezala ulertu behar da, hau da, ezin da isolatutako jarduera zehatz bat bezala egin. Erakundeari proposamenaren garapenarekin lortutako eragina sistematikoki monitorizatzeko eta aztertzei aukera ematen dion adierazleen

sistema bat sortzeko helburuarekin, lau fasetan oinarritutako metodologia bat proposatzen da.

Metodologia horri esker, enpresek adierazleen segimendurako sistema bat zehaztu eta ezarri ahalko dute; horretan, besteak beste, neurketaren helburuak eta emaitzak proiektuan inplikaturako eragileei komunikatzeko modua aurreikusiko dira.



1

### Neurketa-eremuaren identifikazioa

Proiektuaren ezaugarrietan oinarrituta, horrek lan-eremu desberdinak izango ditu. Proiektua kokatzen den eremuak identifikatu behar dira eta neurketaren xedea zehaztu behar da; horrekin batera, argi eta garbi mugatu behar da jaso nahi den eta, hortaz, neurtuko den informazio-mota. Behin aurrekoa identifikatuta, nahitaezkoa izango da bilatu behar den informazio nabarmena zein den eta horren erabilera zein izango den zehaztea.

Garrantzitsua da BEPren bidez ezarritako garapenetik lortu nahi den helburua edo emaitzak kontuan hartzea, bai entitateari, bai ekimenarekin heldu nahi den inplikaturako eragileei dagokienez. Ezartzen diren helburuak errealistak izan behar dira, eskuragarri dauden baliabideekin lortu behar direlako.

Adierazleen dimentsio orokorrak

NEURTZEN DENEAN:	NEURTZEN ARI DA	GOMENDATUTAKO ADIERAZLEAK
Eragina	Amaiera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Efikazia</li> </ul>
Emaitzak	Helburua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Efikazia</li> <li>• Efizientzia</li> </ul>
Produktuak	Osagaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Efikazia</li> <li>• Efizientzia</li> <li>• Kalitatea</li> </ul>
Prozesuak	Jarduerak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Efikazia</li> <li>• Efizientzia</li> <li>• Ekonomia</li> </ul>
Sargaiak		

2

### Dimentsioen eta errendimenduen ezarpena

Behin neurketaren helburua eta emaitzetatik espero dena argi daudenean, berariaz definitzen dira prozesuaren etapa bakoitzean neurtu beharreko funtsezko aldagaiak, garatuko diren adierazleen kopurua, informazioa biltzeko modua eta sortu beharreko adierazle-mota. Adierazleek horiekin lotutako helburuen lorpena monitorizatzeko aukera eman behar dute; hala eta guztiz ere, helburu bererako, posible da errendimenduen dimentsio desberdinak neurtzea. Adierazlearen dimentsioa definitu behar da, hau da, kuantifikatu nahi den lorpenaren alderdia, helburu bakoitza baloratzeko erabiltzen den ikuspegia kontuan hartuta. Oro har, adierazleentzako lau dimentsio orokor hartzen dira kontuan: eraginkortasuna, efikazia, kalitatea eta ekonomia.

Bestalde, bigarren fase honetan, informazioa biltzeko protokoloa ezarri behar da.



3

### Formulen eta erreferenteen eraikuntza

Fase honetan, aurretik ezarritako aldagaiak neurtzeko modua zehaztu behar da. Formularen eraikuntzak bere kalkuluak neurtu nahi diren aldagaien informazioa lortzen duela ziurtatu behar du, hau da, adierazlearen emaitza. Aldagaien neurketa (zenbakitzailera eta izendatzailea) eta erlazio hori emaitzak neurketa-unitate ukigarrietan lortzeko garatuta egon behar da: pertsonen kopurua, orduak, CO<sub>2</sub>ren murrizketa, euroak, metroak, etab.

Balio horiek estrategikoki erabiltzeko eta erabakiak hartzeko balio dezaten, antzeko jardueren historikoak ezarri eta kontuan hartu behar dira edo, bestela, xedeak ezarri, helburua lortzen ari den edo ez zehazteko. Era berean, jarduera-eremuaren datuak erabili ahaliko dira, erreferentzia-puntu bat edukitzeko.

4

### Adierazle-ereduaren fitxaren eraikuntza

Fase honetan, adierazle-ereduaren fitxa bat egitea gomendatzen da, horren ezaugarririk garrantzitsuenak biltzen dituen modu ordenatu eta ikusgarri batean.

ADIERAZLEAREN IZENA	Adierazleari esleitutako izena
ADIERAZLE-MOTA	Sargaia/prozesua/produktua/eragina
DESKRIBAPENA	Adierazlearen azalpen laburra
HELBURUA / XEDEA	Adierazlea existitzearen arrazoia, zein da bere funtzioa? Nola interpretatzen dira lortutako datuak?
KALKULU -METODOA	Adierazlearen formularen definizioa
ESKALA	Nola adierazten da formularekin lortutako balioa
ALDIZKAKOTASUNA	Neurketaren erregularutasuna
ITURRIA	Neurketetarako beharrezkoa den informazioaren jatorria
ARDURADUNA	Neurketaren arduraduna/k

## 5.4.4 BEPko prozesuetan parte hartzeko kontuan hartu beharreko aholku nagusiak

Laburpen gisa, BEPko prozesuetan parte hartzea arrakastaz lortzeko aholku eta jardunbide egoki nagusiak hartzen dira barne:



**«BEPko prozesuak administrazio publikoarekin batera konponbide bat sortzeko aukera bat bezala ulertu behar dira; hain zuzen ere, konponbide hori, laguntza jaso beharrean, kontratu publiko baten bidez lortuko da»**

Saio desberdinetan parte hartzea (lantegiak, topaketak eskaintzarekin, CPMak hedatzeko saioa, besteak beste), honetarako aukera ematen duelako:

- Hobeto ulertzea zein den benetako arazoa
- Parte hartzea eta antolakuntzaren I+G+b ildoekin koordinatutako ideiak ematea
- Networking egitea eta jakitea zeintzuk diren erakunde interesdunak

Erakundeak CPMen txostenean argitaratzen duen informazioa ezagutzea.

- Txostenean, modu agregatuan aurkeztuko da interesgarritzat jotzen diren ideien kopurua. Ikusi ahalko da zeintzuk diren erronkari gehitutako alderdi funtzionalak eta, hortaz, proposatutako ideia interesgarritzat jo den.
- Puntu honetan, garrantzitsuak dira kontratu-prozesuan bateratutako proposamena aurkeztu ahal izateko erakundeak identifikatzeko egindako networking ariketak.

Eskatu ez diren eskaintzen fitxak eta konponbide berritzaileen proposamen-fitxak osatzerakoan, hauxe utzi behar da argi:

- Zer proposatzen ari den zehazki
- Ideia berritzailea den edo ez (TRL maila)
- Proposamenak premia osorik edo partzialki asetzen duen (CPMen kasuan)
- Zein onura eragiten dizkien eragile ezberdinei

Lankidetzaren beldur ez izatea

Idea bat partekatzeko beldurrik ez izatea; izan ere, ideia hori ez da inoiz ezagutzera emango eta, edonola ere, termino futzioaletan jasoko da lizitazioaren pleguetan, kontratuaren esleipenduna izateko erraztasun handiagoa emanez.

Azkena, beti errespetatu beharko dira...

Administrazio publikoak adierazten dituen parte hartzeko formatuak, denborak eta arauak.



## 5.4.5 BEP prozesuetan parte hartzeko bide nagusien argitalpenen eta tresnen adibideak



## 5.5 Zein erronka ditut teknologia eskaintza gisa BEP munduan?

BEPko prozesuetan aktiboki parte hartzeko eta modu egokian erantzuteko entitate publikoek sor ditzaketen erronkei, nahitaezkoa da enpresaren barruan kultura berritzailea, irekia eta arina edukitzea.

Azken horrek esan nahi du, berrikuntza kudeatzea eta nabarmentzea ahalbidetzen dituen prozesu bat edukizeaz gain, motibatutako pertsonak eta ingurune egoki bat behar direla, ideia sortzaileek eta gauzak gero eta hobeto egiteko inspirazioak proposamen eta ideia berritzaileak aurkezteko aukera emateko.

ERRONKAK:  
KULTURA  
BERRITZAILEA,  
IREKIA ETA ARINA



Prozesuak



Pertsonak



Ingurunea



Aurreko elementuak kontuan hartuta, jarraian, eskaintza teknologikoak berrikuntzarako eta BEPrako giro egokia lortzeko

aintzat hartu behar diren zenbait erronka eta jardunbide egoki zehazten dira:

## Prozesuak



- Berrikuntzaren **ikuspegi estrategiko** bat garatzea, enpresari I+G+b terminoetan epe labur, ertain eta luzerako helburuak jartzea ahalbidetzen diona. Horrek enpresan DNA berritzailea sortzea erraztuko du eta, gainera, merkatuari ideia, erronka eta aukerak proposatzera ohitzea lortuko du, baita konponbide aitzindari eta disruptiboekin ere.
- **Aldatzea** enpresa antolakuntza-terminoetan ulertzeko modua. Onartu behar da antolakuntza laua sortzeko erronka, BEPk eta bere ezaugarriak ulertzeko gai diren proiektu-taldeekin.
- Produktuak eta zerbitzuak **diseinatzeko** prozesuetan, bezeroek oraindik ere onartu ez dituzten premiak identifikatu behar dira.
- Enpresaren arloen arteko harreman, komunikazio eta laneko ohiko prozesuak **ingeniaritza konkurrenteko** ikuspegi baten pean garatu behar dira.

## Pertsonak



- **Barne-ekintzaitza** sustatzea, enpresaren kolaboratzaileen ideiak eta konponbideak negozio-entitate berriak izatera ere hel daitezkeen ideia irabazle bihurtzeko.
- Pertsonen **akatsa onartzen da**, berrikuntzaren berezko parte eta enpresako pertsonen onartzen duten arrisku-mailaren parte gisa. Pentsamendu horrek BEP prozesuetan parte hartzea errazten du.
- Ezarritako prozesu berrien gaineko etengabeko **barne-prestakuntza** eskaintzea, barne-gaitasun optimoen egokitzapenerako.
- **Komunikazioa** I+G+b ekosistemako barne- eta kanpo-erakundeekin, berritzeko ezagutzak eta gaitasunak garatze aldera. Horrek, berrikuntza irekiko jardueren garapena ez ezik, BEPk prozesuetan parte hartzeko gaitasunen garapena ere erraztuko du.
- **Sormena** sustatzea eta aldaketaren inhibitzaileak deuseztatzea. Hori egin ahal izango da enpresaren berrikuntzaren eta hori lortzeko helburuen eta pizgarrien baterako ikuspegi bat sortuz.

Aurreko elementuak kontuan hartuta, jarraian, eskaintza teknologikoak berrikuntzarako eta BEPrako giro egokia lortzeko

aintzat hartu behar diren zenbait erronka eta jardunbide egoki zehazten dira:

## Ingurunea



- **Indartzea** enpresaren jardueretan esku hartzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako eragileekiko harremanak. Besteak beste, hauekin: garapen teknologikoko zentroak, ikerketa-zentroak, unibertsitateak, start-upak, klusterrak, etab. Guztion gaitasunak ezagutzeak eta harreman onak edukitzeak balizko BEPko prozesuei aurre egiteko batasun estrategikoak lortzea ahalbidetuko dute.
- Bezeroa (publikoa eta pribatua) enpresara gehiago eta hobeto hurbiltzen duten jarduerak **garatzea**, "bezeroak nahi duena" identifikatzea ez ezik, "bezeroaren bihotzak nahi duena" ere identifikatzea ahalbidetzen duten gaitasunak lortze aldera. Horrekin, eskatu ez diren eskaintzak egin eta produktu berritzaileen dokumentu-zorroak sortu ahalko dira, zehazki, balio bereizgarriarekin eta premiak aurreikusiz.
- **Aldatzea** lehia aurkako negatiboa denaren kontzeptua. Beharrezkoa da ikuspegia aldatzea eta jarduerak garatzeko balizko aliatu gisa ulertzea. Baliteke, BEPko prozesu batean, beharrezkoa izatea horrekin bat egitea balio-eskaintza osatzeko, ezagutza partekatzeko eta estrategiak garatzeko, horrela balizko entitate eroslearen premiak asetzeko .







6.

Zer zalantza sor daitezke  
prozesuaren aurrean?

## 6.1 BEPrekin lotutako zalantza nagusiak

Antolakuntza askorentzako prozesu berria denez, ohikoa da BEPren funtzionamenduaren inguruko zalantzak sortzea. Horregatik, atal honek enpresek BEPko prozesuetan parte hartzerakoan izan ohi dituzten galderak jasotzen ditu.

### **Zein da merkatuari aldeztatik aurretik egindako kontsulten xedea?**

Merkatuarekiko informazio-trukea eduki ahal izatea, administrazio publikoek identifikatutako premiak asetzen dituzten konponbideak lortze aldera.

### **Zer ez da merkatuari zuzendutako aldeztatik aurretiko kontsulta bat?**

- Ez da ideien lehiaketa bat
- Ez da Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako (I+G+b) proiektuentzako laguntza-deialdi bat
- Ez da finantzaketa lortzeko ideia baten aurkezpena
- Ez da kontratazio-prozedura ireki bat, baizik eta kontratazio-prozesuaren aurreko plangintza-etaparen berezko jarduera bat



Jarraian, zalantzarik ohikoenak jasotzen dira, baita horiei dagokien argibidea ere:

### **Nola erabil ditzake administrazio publiko batek jasotako ideiak?**

Jasotako ideiak barne-mailan eta prozesuaren dokumentuetan erabil daitezke. Konponbide berritzaileen ideien deialdi irekiaren esparruan bidalitako proposamenen edukien erabilera eduki horiek erronka teknologikoak definitzeko prozesuan sartzeko aukerara baino ez da mugatzen; hain zuzen ere, hori Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren formularen pean izapidetzen diren kontratazio-prozedura desberdinen pleguetan zehazten da.

### **Zer esan nahi du “enpresekiko harreman hurbilak”? Ezin liteke ulertu informazio pribilegiatuaren entega bat bezala?**

Merkatuari aldez aurretik kontsultatzea jardunbide egoki gisa jasota dago Sektore Publikoko Kontratuen Legean. Bere helburua da jasotako proposamenen ulermena hobetzea eta konfiantzazko giroa sortzea. Ez da legez kanpoko ekintza bat eta beti mantentzen da gardentasun-baldintzen pean.

Jarraian, zalantzarik ohikoenak jasotzen dira, baita horiei dagokien argibidea ere:

### **Zein da “Merkatuari aurretiazko kontsulta bat egitearen” eta “Elkarrizketa lehiakorren” arteko aldea?**

Sektore Publikoko Kontratuen Lege berrian (9/2017 Legea) araututako merkatuari egindako aurretiazko kontsulta kontratuaren aurreko prozesu bat da eta horrek adierazten du kontratazio-organismoek merkatu-azterlanak egin ahalko dituztela eta horretan aktibo dauden operadore ekonomikoei kontsultak zuzendu ahalko dizkietela, lizitazioa behar bezala prestatzeko eta operadore ekonomiko horiei bere planen eta prozeduran lehiatzeko eskatuko dituzten betekizunen berri emateko. Kontratazio-organismoek merkatuari egindako aurretiazko kontsulta erabiliko du lizitazio-prozedura planifikatzeko eta hori gauzatzen den bitartean ere bai, betiere horrek lehia faltsutzeko edo diskriminaziorik ezako eta gardentasuneko printzipioak urratzeko efekturik ez badu.

Ez da nahastu behar Sektore Publikoko Kontratuen Lege berrian (9/2017 Legea – 172. artikulua) ere arautzen den elkarrizketa lehiakorrek, kontratu-izaerarekin esleitzeko prozedura bat dena. Elkarrizketa lehiakorrek mahai bereziak hautatutako parte-hartzaileekiko elkarrekintza bideratzen du, horiek aurretiaz eskatuta, zehazki, bere premiak ase ditzaketen eta hautagaiek kontratu-izaerako eskaintza bat aurkezteko oinarria izango diren konponbideak edo konponbide bat garatze aldera. Prozedura honetan, parte-hartzaileek, prestazio zehatz baten balizko zehaztapen funtzionalak edo errendimendu-zehaztapenak eta ideiak proposatzea baino gehiago, esleipen-botereak horiek kontuan hartzeko, konponbideak aurkezten dituzte, hau da, kontratu-prestazioko proiektu osoak.

### **Nortzuek har dezakete parte deialdian eta kontratazio-prozesuan?**

Parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko borondatea duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek eta mota guztietako erakundeek har dezakete parte:

- Pertsona naturalak eta juridikoak
- Egitura anitzak (partzuergoak, aldi baterako batasunak, etab.)

Jarraian, zalantzarik ohikoenak jasotzen dira, baita horiei dagokien argibidea ere:

### **Ideiak hornitzen dituzten entitateek edo parte-hartzaileek lehentasuna al dute kontratazio-prozesuan?**

Ez. Parte-hartzaileek ez dute inolako lehentasunik kontratazio-prozesuan. Deialdia irekia da eta, horrenbestez, pertsona interesdun guztiak baldintza-berdintasunean tratatzen dira eta ez zaie inolako lehentasunezko eskubiderik bermatzen ideiak eman dituztenei.

Deialdian parte hartzeak, parte-hartzaileekin izandako elkarrizketak edo kontaktuek edo informazio-trukeek ezin dute diskriminaziorik ezako eta gardentasuneko erkidego-printzipioak urratzea eragin. Horrez gain, ezin dute lehia murriztea edo mugatzea eragin, ezta abantaila desleialik edo aldi baterako eskubide eskusiborik eman ere kontratazio prozeduretan.

Uneoro bermatzen da konponbide berritzaileen ideien deialdi irekiaren esparruan aurkeztutako proposamenen konfidentzialtasuna.

### **Nor izango da kontratua sinatzen duen pertsona edo entitatea?**

Kontratazio-prozesua sustatzen duen eta, hortaz, entitate esleipendunarekin kontratua sinatzen duen administrazio publikoa.

Jarraian, zalantzarik ohikoenak jasotzen dira, baita horiei dagokien argibidea ere:

### **Eskaintza teknologikoak dagoeneko planteatutako konponbide bat aurkez dezake?**

Normalean, eta aurkakoa zehaztu ezean, proposamenek ez dute merkataritza-patenterik edo copyrightik izan behar, ezta entitate publikoak edo etorkizuneko proiektuen garapenean elkarlanean ari den beste edozein enpresak horiek askatasunez erabiltzea eragozten duen beste edozein egile-eskubiderik edo enpresa-eskubiderik ere. Hala ere, aukera egongo da merkaturatu gabeko patenteekin lotutako proposamenak, proposatzaileak hori adieraziz.

Edonola ere, etorkizuneko kontratazio-prozesuetan, zehaztapen teknikoak ezartzeko, patente bat existitzeak mugatuko ez dituen betekizun funtzionalak hartuko dira kontuan, betiere errespetatuz lehia-printzipioak.

### **Nor izango da konponbidearen jabea?**

Konponbidearen jabetza intelektualaren terminoak kontratuan ezartzen dira. Entitate kontratatzaileak aztertu beharko du titulartasun horren parte bat mantentzea interesatzen zaion edo, aitzitik, eskubideak enpresa garatzaileari/garatzaileei lagatzen dizkion/dizkien.

Nazioarteko mailan, jardunbide orokorra hau da: garapena hornitzen dutenek garatutako osagai teknologikoak ustiatzeko eskubide eskusiboak dituzte eta administrazio publiko kontratatzaileak erabiltzeko eta aldatzeko lizentzia bat dauka.

Era berean, jabetza industrial eta egile-eskubideak barne hartzen dituzten jabetza industrial eta intelektualaren eskubideen titulartasun-irizpide hau aurkeztutako eskaintzetan baliozta daiteke. Garapena hornitzen duen enpresak ebalua daitezkeen irizpideen parte den banaketa-eskema bat proposa dezake.

Jarraian, zalantzarik ohikoenak jasotzen dira, baita horiei dagokien argibidea ere:

### **Noiz jotzen da erronka bat itxitzat?**

Erronka bat itxita dagoela joko da kontratazio-prozeduraren lizitazioa egiten denean, hori egitea egokia izatekotan.


### **Orain arte dena ondo atera bada kontratazioan eta berrikuntzan bereizita, zergatik aldatu?**

Aitortu behar delako erosketa publikoaren papera ekonomikaren traktore gisa eta badelako garaia entitate publikoek modu bereizgarrian berritzeko bere produktu eta zerbitzuetan.

### **Aurretik inork egin ez badu, zergatik izan beharko nuke nik lehena?**

Administrazio publikoari zein enpresei mesede egiteko modu bat delako, alderdien inplikazio handiagoa duen I+G+b ekosistema bat sortze aldera.





7.

Non lor dezaket BEPri  
buruzko informazioa?

## 7.1 Estatu mailako informazioa

Berrikuntzaren Erosketa Publikoari buruzko informazioa eskaintzen duten erakundeak:

### ENTITATEA



### ESTEKA

GIDA 2.0 BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA - ZIENTZIA  
ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA - MICINN

[www.ciencia.gob.es](http://www.ciencia.gob.es)

<https://tinyurl.com/y2flg6ln>

[www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Innovacion/FICHEROS/Guia\\_2\\_0\\_CPI\\_V5\\_Borrador\\_web.pdf](http://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Innovacion/FICHEROS/Guia_2_0_CPI_V5_Borrador_web.pdf)

EROSKETA PUBLIKO BERRITZAILERAKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA  
[drive.google.com/file/d/0BxCff6hoDyUtTF9fb1R1Z0M4NjQ/view](https://drive.google.com/file/d/0BxCff6hoDyUtTF9fb1R1Z0M4NjQ/view)

ACCIÓ – KATALUNIAKO BERRIKUNTZA AGENTZIAREN BERRIKUNTZAREN  
EROSKETA PUBLIKORAKO ETA BERRIKUNTZA IREKIRAKO GIDA

[www.accio.gencat.cat/ca/serveis/banc-coneixement/cercador/  
BancConeixement/Guia-de-compra-publica-dinnovacio](http://www.accio.gencat.cat/ca/serveis/banc-coneixement/cercador/BancConeixement/Guia-de-compra-publica-dinnovacio)



## 7.2 Nazioarteko mailako informazioa

Berrikuntzaren Erosketa Publikoari buruzko informazioa eta edukia eskaintzen dituzten nazioarteko entitateak:

### ENTITATEA



### ESTEKA

INNOVATION PROCUREMENT INITIATIVES AROUND EUROPE

[ec.europa.eu/digital-single-market/en/news/innovation-procurement-initiatives-around-europe](https://ec.europa.eu/digital-single-market/en/news/innovation-procurement-initiatives-around-europe)

GUIDANCE ON INNOVATION PROCUREMENT - BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOARI BURUZKO EUROPAKO GIDA

[ec.europa.eu/docsroom/documents/29261](https://ec.europa.eu/docsroom/documents/29261)



EUROPAKO GIDA - BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOARI BURUZKO AGINTARI PUBLIKOENTZAKO GIDA

[www.contratosdelsectorpublico.es/DocumentosWEB/16.%20New%20LCSP/PPI-Platform-Guide-ES-Compra%20p%C3%BAblica%20innovadora.pdf](http://www.contratosdelsectorpublico.es/DocumentosWEB/16.%20New%20LCSP/PPI-Platform-Guide-ES-Compra%20p%C3%BAblica%20innovadora.pdf)



EAFIP: EUROPEAN ASSISTANCE FOR INNOVATION PROCUREMENT

[eafip.eu/](https://eafip.eu/)

## 7.3 BEPko prozesuetarako sarbidea

Azkenik, espazio bat gehitzen da, non BEPko ekimenak argitaratzen eta/edo jasotzen diren plataformak dauden,

enpresek horietara sartzeko eta horien inguruko informazioa edukitzeko:

### ENTITATEA



### ESTEKA

EKIMENAK - EAFIP: EUROPEAN ASSISTANCE FOR INNOVATION PROCUREMENT  
[eafip.eu/assistance/procurers-receiving-assistance/](http://eafip.eu/assistance/procurers-receiving-assistance/)



TED ETENDERING - CALLS FOR TENDERS FROM THE EUROPEAN INSTITUTIONS  
[etendering.ted.europa.eu/general/page.html?name=home&locale=en](http://etendering.ted.europa.eu/general/page.html?name=home&locale=en)



SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATAZIO-PLATAFORMA  
[contrataciondelestado.es/wps/portal/licitaciones](http://contrataciondelestado.es/wps/portal/licitaciones)



GARAPEN TEKNOLOGIKO INDUSTRIALERAKO ZENTROA (CDTI)  
[www.cdti.es/index.asp?MP=100&MS=899&MN=3&TR=C&IDR=1549](http://www.cdti.es/index.asp?MP=100&MS=899&MN=3&TR=C&IDR=1549)



BEPKO LIZITAZIOEN ETA EKIMENEN ZERRENDA. ACCIÓ  
 - KATALUNIAKO BERRIKUNTZA AGENTZIA  
[www.accio.gencat.cat/ca/accio/licitacions/](http://www.accio.gencat.cat/ca/accio/licitacions/)

Jarraian, BEPko ekimenak aurkitzeko beste plataforma eta espazio batzuk aurkezten dira:

---

**ENTITATEA**

---



---

**ESTEKA**

---

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA  
[www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/Ultimo.shtml](http://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/Ultimo.shtml)



EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO PLATAFORMA  
[www.contratacion.euskadi.eus/inicio/](http://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/)




EAeko LIZITAZIOAK ETA LEHIAKETA PUBLIKOAK  
[www.infoconcurso.com/licitaciones/pais-vasco](http://www.infoconcurso.com/licitaciones/pais-vasco)



OSAKIDETZAKO BERRIKUNTZAKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO BULEGOA  
[www.osakidetza.euskadi.eus/i-d-i-/informacion/compra-publica-innovadora/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/i-d-i-/informacion/compra-publica-innovadora/)

---





Eranskinak

**a) Merkatuaren Aurretiazko-kontsulten aldez aurreko iragarkia argitaratzeko inprimakia (BEP  
prozesuaren bigarren fasean kokatuta)**

**MERKATUAREN AURRETIAZKO-KONTSULTAREN IZENBURUA**

Merkatuaren  
kontsulta plazaratzea



Espedientea:

Kontratazio-organoa:

Lizitazioaren egoera: Merkatuari zuzendutako aurretiazko-kontsulta irekia

Kontratuaren xedea:

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 0,00 €

Kontratuaren balio zenbatetsia: 0,00 €

Gauzatzeko lekua: Euskal Autonomia Erkidegoa

Kontratazio-prozedura: merkatuari zuzendutako aurretiazko-  
kontsulta

Informazioa:

- Prozesu-mota: Merkatuari zuzendutako aurretiazko kontsulta  
\_\_\_\_\_
- Proposamenak aurkezteko epea:  
\_\_\_\_\_
- Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:  
\_\_\_\_\_
- Irtenbide berritzaileen proposamena igotzeko esteka:  
\_\_\_\_\_
- Informazio gehiago:  
\_\_\_\_\_
- Galderak eta kontsultak egiteko harremanetan jarri:  
\_\_\_\_\_

**Administrazio kontratatzaileak osatu eta argitaratutakoa**

**b) Merkatuko aurretiazko-kontsultek dakartaten erronka aurkezteko eredia: aurretiazko beharra duen inprimakia (BEP prozesuaren bigarren fasean kokatuta)**

**AURRETIAZKO BEHARRA DUEN INPRIMAKIA**

Merkatuaren  
kontsulta plazaratzea



ERRONKA:

Erakunde koordinatzailea:

Bete gabeko beharraren deskribapena/identifikatutako aukeraren hasierako egoera:

Proiektuaren esparrua:

Helburuak:

Aurreikusitako inbertsioa:

Erantsitako dokumentazioa:

**Administrazio kontratatzaileak osatu eta argitaratutakoa**

**c) Merkatuko aurretzako-konsulten emaitzen txostena: egitura-proposamena (BEP prozesuaren bigarren fasean kokatuta)**

**MERKATUKO AURRETEIAZKO-KONSULTEN EMAITZEN  
TXOSTENAREN EGITURA**

Merkatuaren  
kontsulta plazaratzea



1. Sarrera eta dokumentuaren xedea  
\_\_\_\_\_
2. Merkatuaren aurretzako-kontsulta  
\_\_\_\_\_
3. Merkatuari egindako aurretzako-kontsultan lortutako parte-hartzea eta emaitzak  
\_\_\_\_\_
4. Alderdi berritzaile eta interesekoak  
\_\_\_\_\_
5. Ondorioak  
\_\_\_\_\_
6. Eranskinak  
\_\_\_\_\_



a) Eskatu gabeko eskaintzak proposatzeko inprimakia (BEP prozesuaren lehen fasean kokatuta)

**ESKATU GABEKO ESKAINTZA PROPOSAMENA**

Beharren  
identifikazioa



Izenburua:

Izena edo sozietate-izena:

IFZ:

Erakunde mota:

Bete gabeko beharren / identifikatutako aukeraren deskribapena:

Balitzko irtenbidearen esparrua eta bere talde onuradunak:

Egungo artearen egoera eta berrikuntzaren justifikazioa (alderdi berritzaileak):

Entitate laguntzaileak, hala badagokio:

**Eskaintza teknologikoak osatzeko**

**b) Merkatuaren aurretiazko-kontsultetan parte-hartzeko inprimakiak: irtenbide berritzaileen proposamen-inprimakia (BEP prozesuaren hirugarren fasean kokatuta)**

**IRTENBIDE BERRITZAILEEN PROPOSAMEN-INPRIMAKIA**

Konponbide  
berritzaileen  
proposamena



Proposamenaren izena:

Entitatearen datuak

Proposamengilea:

Beharra asetzeko moduko ideia posiblearen deskribapen funtzionala:

Erantsitako dokumentuen zerrenda:

Berrikuntzaren elementuak edo I + G emaitza - Artearen egoerari ekarpena egiten dion berritasuna:

Proposatutako konponbidearen kostua:

Proposamena gauzatzeko aurreikusitako iraupena:

Arauketa eta lotutako arauak:

Irtenbideak eskaintzen dituen onurak:

**Eskaintza teknologikoak osatzeko**



